

317. Zenb.

2022-1

Urtarrila - Martxoa

karmel



NON ZER**Kultura**

- Aita Onaindia, *A. Olea*3
- Altzoko Imaz bertsolariaren “Infernuetaco Penac” bertso-saila,
Xabier Kaltzakorta 13
- Lekukotasun arkeologikoak Araban. Erromatarren presentzia,
Julen Urkiza - Patxi Uribarren39
- Kopla eta bertsoak eliz kantutegian,
Luis Baraiazarra Txertudi75

Eliza

- Mezako irakurgaiak (2). Liburu barrien aurkezpena,
Lontzo Zugazaga 92

Iritziak

- Eliza batzar santua da bekatariez osatua,
Roman Garmendia 113

Literatura***Kontu-Kontari***

- Azkorreko San Antonio Abadearen gela isilean azeri narru
baten izkiriaturik aurkituriko XV. mendeko kronika laburra.
Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloa 119
- Piarres Lafitte, Itsasu eta Murtuts, *Joseba Aurkenerena* 124
- Saiak zeruan dantzan, *Xerar Urrutia Jorajuria* 132

Olerkiak

- Eukene Lizeaga Tamayorenak 135
- Xerar Urrutia Jorajuriarenak 143

Bertsoak

- Karlos Ibarzabalenak 146

KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

Zuzendaria: Julen Urkiza (Markina)

Idazle kontseilua: Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

Helbidea: Karmeldarrak – Markina-Xemein
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)
karmelaldiz@telefonica.net

Harpidetza: Urteko harpidetza: 18€
(Amerika: 35 dolar)

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga
"Harryarts / Freepikek diseinatua"

Aldizkari honetan agertzen diren mota guztietako lanak Creative Commonsen baimenarekin babestuak daude.



Eratzikipena - Ez komertziala - Deribatu gabe.

Erabiltzaileak Karmel aldizkariako elementu guztiak bistaratu, inprimatu, kopiatu eta gorde ditzake, betiere bere erabilera pertsonal eta pribaturako badira soilik; betiere obraren *egiletza, jabetza modu egokian aitortuz gero*. Karmel aldizkariako edukia baimenik gabe merkataritza-helburuetarako erabiltzea edota haiek birsaltzea edo banatzea debekatuta dago. *Lan bat nahastu, eraldatu, edo bertatik beste egintza bat sortzea ere debekatuta dago* betiere **Karmelen** alde zuzeneko baimen idatzia izan ezean, eta hala badagokio, dagokion eskubideen jabearena.

Diruz lagundutako aldizkaria:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68

Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

AITA SANTI ONAINDIA

Hogeita bost urte igaro dira Aita Santi hil zala. Euskal kulturaren erraldoi bat izan dogu berau. Bere azken urteetan ez jakozan falta, han eta hemen, gorespentak eta omenaldiak. Besteak beste, bi omenaldi bakarrik aipatuko ditut. Bata Zornotzako Udalak egindakoa. Bestea, Santi hil ondoren, Euskarazaintzana.

Jose Alberto Gurtubai alkate zala, omenaldi eder bat antolatatu jakon. Baita kale barri bati bere izena jarri ere. Zer esanik ez, euskal literaturari buruzko ikerketa-lana bultzatzeko, Santi Onaindia izeneko beka bat sortu ere.

Zornotzako omenaldi horretan, Juan Mari Lekuonak Aita Santiren olerkigintzari buruzko hitzaldia, benetan antologikoa. Merezi dau, adibide gisa, gorralpen hau aipatzea:

“Era askotako lana du euskal olergintzan egina Aita Santi Onaindiak. Zabalkunde eta irakaskuntz mailan hor dugu bere *Milla euskal-olerki eder*, funtsezko idaztiturria gertatu dena gerraondoko gure literatur giroan. Gero, olerki itzulpenetan oso gutxik eskain dezake berearen idazki aberastasunik: liburu mailan, Homeroren *Odisea*, Bergileren *Idazlanak* osorik eta Dante Aleghieriren *Jainko-antzerkia*; antologia mailan, berriz, hor ditu Esoporen *Ipuinak*, Horatiren *Odak*, Gabriela Mistralen olerki aukera, Rabindranath Tagoreren olerki aukera; eta poema sorta mailan, azkenik, bi dozena inguru erdal

autoreen olerkiak. Hitz baten, euskal olerkigintzaren muina eskaini digu, eta berau kanpoko hainbat maisuren ekarriz aberastu.

Olerki mugimentu baten euskarri eta eragile izan dugu Aita Santi. “Olerki” aldizkeriaren sortzaile eta zuzendaria izan da, ordu zailtan bere bizkar hartzen duelarik euskal olerkiak plazaratzeko zeregina. Eta esan dezagun, aldizkariak nortasun poetiko jakina ematen diola euskal olerkigintzaren zerbitzari, biztaile eta defendatzaile izan dugunari. Euskal olerkiari lotu-loturik agertzen zaigu Aita Santi Onaindiaren nortasuna. Denok ezagutzen dugu, eta aitortzen ere bai, antologi lanetan, poesi itzulpenetan, aldizkari zuzendaritzan eta literaturaren arloan utzi digun lan zabal eta mamitsua”-

Santi hil ondoren, Euskerazaintza ere ez da ahaztu beragaz. Alde batetik, bere lan guztiak digitalizatu. Lan handia eta eskertzekoa! Bestetik, Larreako zelaian, brontzez eta harriz egindako irudi eder bat jasoz. Erakargarria bertan jarritako idazkuna: “Lekaide, Abertzale, Idazle, Olerkari”.

Nik neuk, “Lekaide” barik, “Jainkozale” ipiniko neuke. Hobe dagokio. Kristau fedearen muina Jaungoikoa danez, ego-kiagoa da adarretan galdu barik, sustraira jotzea. Fede bidean, oinarrizkoena Jesukristoren Jaungoikoa maitasunez eta esker onez onartzea da. Hori da bokazio guztien zimentarria eta ez bokazio hau edo bestea aukeratzea.

Aita Santiren Jaungoikoa

Badira Aita Santi abertzale edo idazle edo olerkari bezela egindako azterketak. Ez asko, baina badira! Fededun bezela egindakorik nik neuk ez dot ikusi bat bera be. Aita Santiren heriotzaren hogeita bosgarren urtean, beraren “Olerki guztien bilduma” irakurtzea bururatu jatan. Bilduma hau, 1989. urtean, Julen Urkizak prestatutako lana dogu. Bilduma horretan ageri dan Aita Santiren Jaungoikoa izango da lantxo honen asmoa.

Lar mugatutako lana. Halan be, bilduma honetan 1929. urtetik 1989. urterainoko olerkiak datoz. Bada zerbait, Aita Santiren Jaungoikoaren aurpegia sumatzeko.

Samurtasunez, maitasunez, errukiz beteriko Jaungoikoaz egiten dau topo Aita Santik. Ez dau lortu Jaungoikoa ezagutzea beste munduko ikuskizun bat izan daualako edo halako ideia jenial bat izan daualako edo etikaz zuzen jokatu daualako edo liburu mordo bat irakurri eta irakurri, ikasi eta ikasi daualako... Larreako olerkariaren Jaungoikoa ez da zerbait, Norbait baino: Kristo Jesusen Jaungoikoa. Beronegaz pertsonalki topo egitean aurkitzen dau Jaungoikoaren “Aurpegia”, “Argia”, “Bizia”, “Bidea”.

Apal eta umil, maiteminduta datorkio Jesus Jauna, eskale antzera, bere maitasuna eskeintzen. Jesusen jaiotza pobre Belengo estalpetxoan, bere heriotza kurutzean josita Kalbario tontorrean, bere presentzia Eukaristian, bere bizitza osoa hausnartzean, sentitzen dau gure olerkari handiak Jaungoikoa maitasuna besterik ez dala. Enamoratuta, maiteminduta dator kiola Jaungoikoa bere bihotzaren bila.

Bizipen eder hau sarritan ageri da Santiren olerkietan. Ez da bizi, beraz, jatorrizko pekatuaren eta pekatu astunen bildurrez bueltak emon eta emon... Deigarria bada be, Santiren olerkietan, ez da behin ere “infernu” berbea agertzen betiko kondenazinoa adierazteko. Ikusten danez, harentzat hoba da Jaungoikoaren maitasunean sinistutea, pekatu larriei begira jardutea baino. Ez da eskandalizatzen Jaungoikoa hain ona izateaz gizakion lorrinetan... Norbere pekatuei begira bizitzea baino ederragoa da Jaungoikoaren errukiari begira bizitzea.

Hiru olerki esanguratsu

Larreako poetaren “Olerki guztien bilduma” irakurrita, hiru olerki aukeratu ditut berak bizi dauan Jaungoikoaren aurpegia sumatu nahirik. Bata, “Maitasun-Aiotsak”, hogeita lau urte eukazala idatzita. Bestea, “Maite miñetan”, berrogeita lau urte-

kin. Eta hirugarrena, “Nere baserria”, hirurogeita sei urte dituala idatzita, nahizta hirurogeita hamasei zituala argitaratu.

“Maitasun-Aiotsak”

Hogeita lau urte lerdin ditu Aita Santik. Jaungoikoaren errukiz beteriko maitasuna nabaritzen dau gure olerkariak. Eta baita bere aldetik, iheska egiteko gogoia ere. Garbi ikusten da barnean daroan tirabira. Baina, Jaunaren maitasunaz hunkituta, maitasunaz erantzuten deutso. Maitasuna, maitasunaren truke.

“Gentz ta bizitz bera nozu. Lurrak eztamo ezer.
Deskiñan bake-aroa iñondik bai al dager? .
Erdi arin ona, seme; zeure maitetasuna
da baitegi bakarrean egunoro naukana.
Ertzik eztau maitasunak. Sua dot biotzean;
Sar berton, ta ez izotzik izan gogo barnean,
Zu nigan eta ni zugañ loki leunez batuta,
biotz-muñeak arrago gorian kiskalduta,
bat izango gara biok maitasunan altzoan.
Maitasuna dan gozoa! Erdi ona beingoan”

Olerkari gaztearen erantzuna zirrargarria:

“Eta nik, maitasun-aiots samurrok adi arren,
askok lez, ez entzun egin, basatzen ibiltarren?
Ez, Josu, Zeugana nator; zeusat nire biotza.
Nigaz nai dozuna egin; urtu gogoko izotza”.

“Maite miñetan”

Berrogeita lau urtekin ere, irmo mantentzen dau hogeita lau urtekin Jaunari emondako berbea. Sasoiko gizon gaztea dogu

Santi. Bitartean gorriak ikusita dago. Anaien arteko gerra zibila, gudarien kapilau zanez, milaka eta milaka gudari gazte bazterretan garbituta, beste asko eta asko erdi txikituta, Gernika bonbaz erreta, gerra galdu eta atzilotuta, urteak kartzelan igaro ondoren Euska Herritik kanpora desterratuta... Bizipen gordinak jasandako gizona dogu Aita Santi. Eta zoritzar horretatik Jaungoikoagaz adiskideago bihurtuta ageri jaku. Garbi ikusten da beraren olerki "Maite miñetan" sonatuan. Inoiz baino hurkoago eta samurrago sentitzen dau Jaunaren ahots goxoa:

"Samur dei deutzut sarri,
ta zain gau-ordu luzez
egon naz aspaldi;
egizko Odol ta Soñez
ba-dautzut nik atondu
maitasun-apari.

Artu ta jan naitara
zure barren epela
laster da bizkortu
or, zure errai zokoan,
maite jabe gorian,
nai dot atsedendu

Zure billa zerutik
jatsi nintzan; lurrean
zure miñez nabil.
Neurri bardiñekoa
beite, aurrerantzean,
bion biotz-pilpil.

Erdu, bai: zeren lotsa?
Antziña lez, oiñaztuz
ez zaitut zemaitzen:
aul, bakar ta oiuka,
zugazko maite-sutan
bai naukazu emen”.

Gerra aldian eta gerra ondoren gorriak ikusitako gizon minbera eta helduaren erantzunak harrিতa dar-dar jarten gaitue. Ez da ageri etsipenik, ez protestarik, ez kexarik, ez Jaungoikoari kontu eskatzerik... Alderantziz, poza, gozamina, ditxa, esker ona dariola...

“Zure itzal muga bako
ames laiñoz egiña,
ta nire itzal zoro,
etenkor ta gelbera,
alkarregan baturik
begoz aldi oro.

Oi, Josu, maite samur!
neure zaitut osorik,
zeure nozu guztiz.
Biok gagozan emen,
ileti bi antzera,
leia ta su biziz”.

“Nere baserria”

Emon daigun beste salto luze bat Aita Santiren bizitzan, 1975. urteraino. Hirurogeita sei urte bete-beteak daroaz lepoan. Oraindino osasuntsu eta argi burua. Urte horretan idaz-

ten dau “Nere baserria”. “Arnas handiko poema”, Juan Mari Lekuonaren iritzitan. Poemaren kantuen bihotzean bada kantu eder bat, Jaungoiko Kreatzailearen ontasuna goستن dauana. Esker oneko oda goitiarra dirudi. Liluragarria! Larreako olerkariaren barneko Jaungoikoa diz-diz ageri da izadian. Merezi dau osorik kopiatzea. Nik “Orduen liturgia” liburuan kopia bat daroat salmoekin gorespentetan erreztatzeko. Irakurleren bat animatzen bada, hor dozu!

“Nere anima, goretsazu Jauna!
gutziz aundi zaitut, ene Jaun eta Jainkoa!
Aundi ta eder zaude jantzia,
estalki duzu argia.

Ortzia oial-txabola bezela zabaldu duzu,
zure egoitzak ur-gaiñean eraiki dituzu.
Odeiak ezarri dituzu gurditzat,
aizean egaletan zabilta.
Aizeak dituzu aurretik Zu iragartzeko,
su bizkorrak zure zerbitzuko.
Ezarri duzu lurra bere orpoetan,
ez da kolokatuko menderen mendetan.
Itxasoz bildu duzu soiñeko gisan,
urak mendi gaiñean kokatu ziran.

Zure zemaz joan ziran iges,
izutu ziren Zuk ostots egiñez.
Joan ziren mendietan gora, ibarretan bera,
Zuk eman zenien tokira.
Muga ipiñi diezu igaron ez dezaten,
berriro lurra estali ez dezaten.

Ibaiak sortu dituzu iturrietatik,
 eta xirripan doaz mendi artetik.
 Basa-pizti guztiei ura die ematen,
 basastoei ere, egarria il dezaten.
 Zeruko egaztiak bizi dira ur-ondoetan,
 ematen dituzte beren txioak muskilletan.

Mendiak zure egoitzatik ureztatzen dituzu,
 lurra zure eskuko emariz asetzen duzu.
 Sortzen duzu belarra abereentzat,
 landarea gizonarentzat;
 atera dezala lurretik ogia,
 giza-biotzarentzat ardo alaigarria;
 aurpegia olioaz legundu dezan,
 arkiak giza-biotza zuzpertz dezan.

Atsedean dira Jaunaren zugatzak,
 Ark landaturiko Libango izaiak.
 Aietan egiten dute kabi egaztiak,
 aien adaburuetan du etxe amiamokoak.
 Mendi garaiak basauntzendako,
 arkaitzak azkonarren zulotako.

Illargia egin duzu noizaldia mugatzeko,
 eguzkiak ordua badaki sartzeko.
 Zuk illuna egin eta gaua sortzean,
 an dabilta basa-piztiak arontz-onontzean.
 Leoikumeak orroka eize-billa,
 Jainkoari eskatzen diote bere jakia.

Eguzkia sortzean badoaz iges,
beren gordelekuetan dira etzaten.
Irtetzen da gizona bere lanera,
bere arlora, goizetik arratsera.
Bai ugari direla Zuk egiñak, Jauna,
zugurtasunez egiñak zearo,
lurra zure sorkariz betea dago.

Itxaso aundi zabal ortan narraziak ugari,
bizidun txiki ta aundi.
Badabiltza itxasontziak ortik ara,
Lebiatan zuk egin duzu ango jostagarri dala.

Guzti oiek begira dauzkazu,
garai onez jana eman dezaiezun.
Zuk emanik artzen dute,
Zuk eskua zabalduz onez aserik daude.

Aurpegia gordetzen baduzu, ikara dira,
arnasa kentzen badiezu, iltzen,
beren autsera biurtzen.
Izanik daude zure arnasa bialtzen baduzu,
lur-azala berrierazten duzu.

Bedi Jaunaren ospea sekuletan,
poztu bedi Jauna Berak egiñetan.
Lurrari begiratzen badio, au ikaratzen,
mendiak ikutzen ditu, ta kea sortzen.

Eresi egingo diot Jaunari, bizi naizeño,
goratzarre nere Jainkoari, ni naizeño.
Bekio atsegingarri nere leloa,
nere poza da Jainkoa”.

Hogeita bost urte igaro dira Aita Santi hil zanetik. Berau dogu Larreako izarra. Jainkozale fina, abertzale zintzoa, idazle ugaria, olerkari goitiarra. Bere izarrak diz-diz argi egiten iraugo dau. Ez da amatauko. Ez da desagertuko.

A. Olea

ALTZOKO IMAZ BERTSOLARIAREN “INFERNUETACO PENAC” BERTSO-SAILA

Agustin Mendizabali, merezi onez

Sarrera

Gure bertsolari zein bertso-jartzaile zaharren altxorrik miragarriena Antonio Zavalak bere bizitza osoan –argitaratzen hasi zen 1961etik aurrera 2009an hil arte– osatuz eta aberastuz joan zen *Auspoa liburutegia* dugu. Bertsolari zein bertso-jartzaile zaharren bizitza-zertzelada zein bertso-sailak Auspoa liburutegiko urrezko aleetan aurkitu ohi ditugu. Hemeretzigarren mendeko Xenpelar (1835-1869) bertsolari errenteriarren berri jakin nahi duenak, zein Bilintx (1831-1876) donostiarren berri, zein Udarregi (1829-1895), zein hainbat bertsolari zaharren berri jakin nahi duenak nahitaezkoak ditu Auspoa liburutegiko aleak kontsultatzea bere jakingosea asetzeko. Zenbait bertsolari zaharren bizitza zein bertsoak ezagutzeko, Altzoko Imazenak kasurako, Auspoa liburutegiko aleak argibide iturri nagusia ezezik, are iturri bakarra ere izan ohi dira.

Lan ikaragarri hori, gezurra badirudi ere, batez ere gizon bakar bati zor diogu: Antonio Zavala jesuita tolosarrari. Auspoa liburutegiko bi edo hiru bertsolari zaharren liburu monografikoak bestek idatziak dira. Bordel (1792-1879) bertsolari zaharraren berri, esaterako, Jose Mari Satrustegik eman zuen; oraintsuagoko Mañex Etchamendi (1873-1960) bertso-jartzaile baxenafartarraren bertso-sailak Piarres Lafittek eman zituen; Graziano Anduaga (1877-1965) gesaltzatarrarenak Luis Villasantek.

Guk artikulu xume honetan XIX. mendeko Manuel Antonio Imaz Garaialde (1811-1893) bertsolari zaharraren “Publicatzea comeni zaigu” edo, hobeki esateko, “Infernuetaco penac” bertsopaperaren berri eman nahi dugu orain arte behintzat, eza-gutzen ditugun argitarapen nagusian –Antonio Zavalaren *Alzo’ko Imaz bertsolaria* liburuan–, oso-osorik eman ez delako. Gure lantto honetako helburu nagusia, beraz, 1864an, orain dela ehun eta berrogeita hamar urte baino gehiago argitaratu zen bertsopaper bateko bertso-sail osoa ematea da.

Altzoko Imaz bertsolaria (1811-1893) zertzelada nagusiak

goraxeago esan dugun bezalaxe, Auspoa liburutegiko aleak dira hainbat bertsolari zein bertso-jartzaile zaharren gordailu nagusiak. Antonio Zavalak bere lehen artikuluetakotan, 1956ko Arantzazuko euskaltzaleen biltzarreko hitzaldi-koan, Altzoko Imazen berri ematen du (Zavala 1956: 237-238):

El otro bertsolari (lehenago Franzisko Iturzaetaz aritu da) es Manuel Antonio Imaz. Se le conocía por “Altzoko Imaz”. Su producción es más extensa. Se cuenta de él que marchaba al campo con papel y lápiz en el bolsillo. Cuando le llegaba la inspiración detenía a los bueyes y escribía. Sería demasiado largo enumerar sus bertso-papelas. Sólo diré que éstos se reducen a dos grupos: los religiosos –sobresaliendo entre ellos un folleto sobre la Pasión y otro sobre el Juicio Final– y los políticos. Estos no podremos nunca aplicárselos por más que poseamos quizás muchos de ellos. Acendrado carlista, atacaba con ellos a los liberales (beltzak) y prudentemente los publicaba anónimos. Acudí a su caserío y me encontré con un tesoro. “La etxeakoandre” joven me sacó de una “kutxa zarra” varios papeles manuscritos de su bisabuelo. Había allí bersos sobre el Avemaría, contra el juramento, sobre el triste regreso de un indiano, sobre los achaques de la vejez, contra la desidia de los “morrois”, sobre los pecados capitales, sobre la muerte, sobre la vida de san Martín Loinaz.

VERSO BERRIAC.

1. Publictzen conveni zaiga

Infernuetaco penac,
Ara bidetic apartatzeco
Orain munduan gaudenac;
Cemlat desdicha daucaten entzun
Engahatu cirdeuac.
Bildur orrequin cumpli ditragua
Jaungoicoaren ordeneac.

2. Jaungoico onac agoindu cigun
Bera amatu gonatzala
Gauza gucien gahetan eta
Proginoac guerao berela;
Beteo ditcha alcantatzeco
Ala porta guinteela,
Izango guerala castigatuz
Gaheracian hostela.

3. Jaungoicoa ta naiz proginoac
Batec ofenditzen bada,
Erremedioac jarri zirquigon
Ihor ez gaitteen galdua;
Penitencioac sacramentua
Ereicibitu beardu,
Nor bere faltaz condenatzen da
Ori eguiten ezpudu.

4. Aita Etenoa gure criadore
Cristo erremedieteco,
Nore izan bear du valore
Jaun ori ofendituzco;
¡Ay motiveac justuac ditu
Coleran aserratzeco,
Atgati dago infernu ori
Gaitzue castigatuzco!

5. Jaungoicoaren poderioa
Añ audia izanican,
Infernu ori gucic eruela
Berac dauca eguitican;
Bera contrae peatariac
Castigatuzca gatican,
Cer nabiguene izango diran
Consideratu oritan.

6. Peligro asco daude munduan
Bici gaitteen contuan,
Sententici lana aruco degu
Itizen gueraden puntuan;
Juez di inoac emango digu
Bera Tribunal Santuan,
Entzun diltzagan condenatuac
Gueoz cer pena dituan.

7. Peatua danac egingu dute
Inferman su ta garra,
Eduanac an etia sartuco
Berac sufritu bearra;
Martiritzen etica dabil
Beti demonio zarra,
Ayen arteco bicimodus
Eta izango aih cbarra.

8. Infernuetan seculetan ez
Consuelo bat lacarra,
Eman ausia, or carrassia
Eta andic deudarra;
Atsegua falso batengatic jo
Calabozco ondarra,
Demora juanda provechubgue
Hostec badauca negarra.

9. Munduco suen aldean dira
Infernuoac beruac,
Pareic eta cabo laguesac
Ango pena gueneoac;
Ara bidetan dabilzanac bai
Ahill usteco eroac.
¡Ay leartu bear ginduzque
Gaitzuen paraduac!

10. Gose egari misserableac
Ana beti samia,
Quircalcioa heridac ustel
Usaya ere siquifa;
S-otiduetan miñac aundiac
Aguantatu etia,
Anche nequetan pagatcenda
Pecatu erraz eguia.

11. Eguna juan, eguna etorri
Urteac juan da etorri,
Condenatuen martirioa
Beti leen hecñ berri;
Pena laceac libratuzco
Plazoric etayo jarri,
Etruidadean an egon bear
Mallu ioca atearri.

12. Ill nai luquea ta ez conveni
Daude ecin bucatoric,
Igues eguin nai bahaun eztago
Ateratzeco leuic;
Gahera hertz gloria dauca
Nore bere faltaz galdoric,
Condenatua oyece pensatzen
Dago desesperatoric.

13. Azquen juicioz infernutaerac
Cristoc nai diñ atera,
Cer causa duen satisfacio
Publicoan ematera;
Lengo corpulza amada hertz
Botaco ditu atzera,
Esan ditudan tormento oyece
Berriro padecitzera.

14. Informan zu izan alizera
Esan lezaque jendeco,
Choraquerian eguin oidira
Modu orretan galduec;
Ex naiz izandu bahaun badaquit
Ceren dacarren fedeac,
Esan diranac eguiae dira
Ulzi araco bidac.

15. Etsai gaitzuec convidatuzca
Gaitzute heren aldera,
Mundu gucien zalalduican
Dago orien bandera;
Lossinchatua ceptac bota
Nai ginduzquea mendera,
Istillo charra guretzat dago
Engahutzen bugera.

16. Icaratua jarri gaitteen
Infernu gaitzo ostequin,
Ez dezala arren partericijan
Orain bici gueranaquib;
Conformatua egon gaitzen
Gueren Jaungoicoarequin,
Cera ederra guretzat dago
Ciotzo postatuarequin.

17. Faltarioe duanac eguin beardu
Orain lembicio lana,
Biotzeta an convertituzca
Gueren Jaungoicozguna;
Cencencia gaitbituzco
Guero confesio an lana,
Gaheracian galdua dago
Pecatuan itizen dana.

18. Peatuaeren sustoi guciae
Quendu diltzagan beuguan,
Ta infencio pena oriee
Maiz erabilli gogoan;
Consideratzen bade galdua
Cer misseritan dagan,
Lea becñ erraz ocasiara
Eza juango urregon.

19. Argalhasuec noiz edo berria
Baldñ erortzen laguña,
Lengo gracia bihurtuzco
Eguñ pronto aleguña;
Danutu eta aitorizen bada
Nore bere gaitzi eguña,
Jesucristoren misericordia
Orain daucagu biguña.

20. Santa Maria Cristoren ama
Bitarfeco guciana,
Amparo lague eztu utzitzen
Ondo escatzen diena;
Argo lagunduz gueroec sayatu
Logratzeco zoriona,
Au da modus saluatuzco
Imazec derizquiona.

Puedon imprimirse.
Benito Gorostegui.

Tolosa 22 de Abril de 1861.

Tolosa: Pedro Guiracbagaren molditogona

Artikulu hori egin eta hamaika urtera, 1967an, Imaz bertsolariaren monografia atera zuen: *Alzo'ko Imaz bertsolaria*. Liburu hau ezinbestekoa da Manuel Antonio Imaz bertsolariaren bizitza-zertzelada zein bertso-sailen jakitun egoteko. Delako liburuaren sarreran Altzoko Imazen bizitzako hainbat zehaztasun ematen ditu Zavalak. Eta konturik harrigarrietako bat hauxe da: Altzoko Imazen berri jakin nahi dituenak Arantzazuko 1956ko hitzaldia eta 1967ko Auspoako alea irakurri beharko dituela, elkarren osagarri baitira: batean esaten dituenak bestean ez ditu esaten. Bi lan horietako berri guztiak hona ekarriko ez baditugu ere, puntu honetara artikuluko zein liburuko berri apur batzuk aldatuko ditugu.

Jaiotzako errejistroetan Manuel Antonio de Imaz y Garaialde izen-deiturak zituen bertso-jartzailea hemeretzigarren mende bete-betean bizi izan zen, 1811 urteko maiatzaren 19an jaio zen Legarre baserrian eta 1893ko azaroaren 9an hil zen, 83 urte zituela. Mundualdi luzea izan zuen bizi zen garairako: lehen eta azken hamarkadak kenduta hemeretzigarren mende ia osoa hartzen duena. Bi gerra karlistak bizi izan zituen, beraz, lehena 22 urte zituela, eta, bigarrena, 52 zituela. Antonio Zavalak bere bertsoak aztertuz aitortzen duenez, karlista zen. Alzo Gipuzkoako Tolosaldean dagoen herrixka bat dugu, bertakoa zen Migel Joakin Eleizegi (1818-1861), Altzoko handia, hil arte haziz joan zen bi metro eta berrogeita bi zentimetroko gizon erraldoia. Altzoko erraldoia gure Altzoko Imaz baino zazpi urte gazteagoa zen eta hain herri txikian elkarren ezagunak, nahitaez, izan behar zuten.

Bizitzako zehaztasun jakingarri asko ematen baditu ere Antonio Zavalak aipatu dugun lan monografikoan, guk puntu honetara bakarrik bi pasarte ekarriko ditugu. Lehena ezkontzarena da (Zavala 1967: 11):

Ezkundu zan urtean, pago-landare bat aldatu zuan Imaz'ek Basaitz mendian, Gaztaña-motzeta deritzaion basoan, karobi baten ondoan, sagasti baten saietsean.

Andik aurrera izugarrizko arretaz kontu egin oi zion. Aldameneko sagastira zimaurrea zekarrenean ere, pagoari ere jartzzen zion jira guzian.

Ta loditzen nola zijoan ikustera ere, askotan joaten zitzaion. Gerrikoa erantzi ta pagoaren gerria neurtu egin oi zuan. Gero etxean upela neurtzen zuan. Orrela antzematen zion azkenekotik zenbat irabazi zuan. Il zan aurreko astean ere, esan dan eran neurtzen ari izan zan.

Pagoa inautsi edo mugartu egin zuten. Geroz, barren guzia usteldu egin zitzaion. Imaz'en billobak, berriz, barrengo zuloa arriz bete omen zuten.

Urtean buruan izugarri loditu zan. Orain ogei ta bost bat urte, bost gurdi egur kendu zioten adarretatik.

Hunkigarria da norbaitek ezkontzen den egunean pago-landare bat basoan landatzea eta bizi den arte guztian pago-landarea maitasunez zaintzea, inoiz ahaztu gabe zimaurtzeko ardura hartuz. Garai bateko pentsamendu magikoaren adibide zoragarria ere bada. Pentsamendu magikoarena diogun moduan, magia sinpatikoa ere deitu ahal dugu. Pago-landarea zaindu zuen bertso-jartzaileak maitasun harremana ere ardura beraz zainduko zuen. Altzoko Imazen pasarte honetan oinarri hartzen du Kirmen Uribe poetaren *Bitartean heldu eskutik* liburuko *Pagoa* izeneko poemak.

Altzoko Imaz, Antonio Zavalak aitortzen duenez, ez zen plazako bertsolaria izan, lagunarteko bertsolaria eta bertso-jartzaile ugaria baizik. Antonio Zavalak 386 orrialdeko liburua osatu zuen Altzoko Imazen bertso-sortez eta liburu gotor hori ezezik beste zenbait ere osa zitezkeen bertso-sailak galdu ez balira (Zavala 67: 15):

Inprentatu ondoren, bertso-paper bakoitzetik bana edo bina gordetzen zuan. Ala, il zanean, kutxa bat iya goraño betea utzi zuan. Bañan etxeko neskame-morroiak, pixkabanaka ta iñori ezer esan gabe, eramaten asi ziran; ta, etxekoak akordatzerako, kutxa ustua zuten.

Kutxa arek bertso-paperez beterik iraun izan bazuan gugaña, mesede ederra genduke noski, bai betiko galdu dan bertso-sail asko bertan izango zalako, ta bai Imaz'ek jarri ta izenik gabe inprenta-arazi zituan sail asko arenak zirala jakingo gendualako.

Pena ematen du pasarte hau irakurtzeak. Hemeretzigarren mendeko bertso-jartzaile ugari baten hiru dozena pasatxo bertso-sail –Antonio Zavalaren edizioan 40– bakarrik ezagutzea, askoz gehiago izan zitezkeenean. Kutxa bat goraino bertso-paperez betea egoteak, hain altxor handi eta prezatuak, ez al du gogora arazten, *mutatis mutandis*, Pessoa idazle portugaldarraren eskuizkribuz jositako kutxa handia? Kutxa zaharreko bertsoak lapurtu zituen morroiaren zehaztasun bat 1956ko Arantzazuko biltzarreko hitzaldian hauxe irakurri zuen (Zavala, 1956: 239)¹:

En el caserío de Manuel Antonio Imaz me dijeron que habían oído contar que en tiempo de su bisabuelo había una verdadera pila de bertsos. Pero un día el “morroi” del caserío los robó todos y huyó. Acudí al caserío del “morroi”, entre Iruira y Tolosa, pero ni sabían ni tenían nada.

Harrigarriak dira, benetan, Antonio Zavalak baserri baserri bertso zaharren bila egin zituen ibilaldiak. 1956ko Arantzazuko hitzaldiak bizitza oso baten kezka laburbiltzen du hitz gutxitan: “Bertso berri billa Euskalerrria zear”.

¹ Zehaztasun hau ez du Antonio Zavalak Altzoko Imazen liburuan ematen, lehenagoko hitzaldian baizik.

Imaz deitura duten hiru bertsolariren berri laburra

Alzoko Imaz bertsolaria (1811-1893), Manuel Antonio Imaz Garaialde izen-abizenez, ez da Imaz deitura duen bertsolari bakarra. Deitura bereko beste bi bertsolari behintzat ezagutzen ditugu. Jose Manuel Imas delako bertsos-jartzaile bat georogokoa dugu, ondarroatarra, itxura guztiak direnez, baina gipuzkeraz Bizkaiko euskararen inolako kutsurik gabeko bertsos-paperak argitaratu zituen. Jon Bilbaok bere bibliografian lau bertsospaperen berri ematen du. Lauotan sarrera bera ematen da: *Bertsos berriak Jose Manuel Imasec jarriak*. Hona hemen lau bertsospaperen berri²:

Bertsos barriak Jose Manuel Imasec jarriak. Ama Antiguacuari izenburua duen saila 1904an eman zen argitara eta Ondarroako Ama Antiguako elizara egindako erromesaldi baten berri ematen du. Gernikan eman zen argitara Angel de Goitia moldiztegiaren Hamabost bertsos ditu. Hasiera: *Milla berachidegun /Gañera lau urte*.

Bertsos berriak Jose Manuel Imasec jarriak. *Gastien consolagarriak* izenburua duen bertsos-saila Eibarren Pedro Orue moldiztegiaren argitaratu zen 1908an. Bertsospaper honetan bi sail datoz. Lehen saila hamar bertsoskoa da, bi bertsosko errepike

² Hona Elizaren artxiboan aurkitu ditugun datuak. Bost neba-arreba izan ziren Imaztarrak, arreba zaharrena, Joakina Antonia Ymaz Elezgaray (1873-03-14) datan jaio zena, eta urte bat gazteagoa bertsos-jartzailea zen Jose Manuel Ymaz Elezgarai (1874-11-20). Lehen biak Mutrikun jaio ziren eta azken hiru arrebak Ondarroan: Ramona Ignacia (1877-09-01), Juana Ventura (1880-11-05) eta Maria Brigida (1885-11-05). Itxura guztiak direnez, beraz, 1877 urtean edo lehenago familia osoa Ondarroara etorri ziren bizi izatera, azken hiru arreba gazteak Ondarroan jaio baitziren. Jose Manuel Ymaz, beraz, hiru urte zituela –edo lehenagotik– Ondarroan bizi zen. Jose Manuel Ymazen gurasoak Felipe Maria Ymaz Zubiaurre eta Teresa Elezgaray Albizu mutrikuarrak izan ziren. Arrebarik zaharrenak –gure ustez 1950eko hamarkadan– bere nebaren bertsospaper bat eman zion Antonio Zavalari. Tolosarraren funtsean aurkitzen den *Bertsos berriak Jose Manuel Imasec jarriak*. *Gastien consolagarriak* bertsospaperak zehaztasun hau dakar lapitzez idatzia: ex Antonia Imaz Elezgaray egillearen arreba. Bilbao.

duela, eta ondoren 22 koplako sail bat dator. Hasiera: *Milla ta bedratzireun eta/ Sortsigarrengo urtian*.

Berso berriac Jose Manuel Imasec jarriac Salbasiuaren gañian. Zein urtetan argitaratu zen ez dakigu. Hamabost bertso ditu. Hasiera: *Berso berriac oraiñ/ nua cantatzera*.

Berso berriac Jose Manuel Imasec jarriac. 1901ean argitaratu ziren. Hamalau bertso ditu. Hasiera: *Memoria da pensamentua/ bialdu dit Jaungoicuac*.

Zein Jose Manuel Imas zein lau bertso-paper hauen berri emanek artikulu bat idazteko asmoa dugu luze baino lehen. Artikulu etorkizun hori gure aldizkari honetako lan baterako utziko dugu.

Imaz deitura zuen hirugarren bertsolari bat Fermin Imaz (1879-1929) bertso-jartzaile donostiarra dugu. Ogibidez marirela omen zen eta itsasoraterik ez zuenean, portuan ikatz karga-deskargan eta holakoetan aritzen omen zen. Ahots ederreko bertso-jartzailea izan zen eta herriz herri bertso-paper sal-tzen ere jardun zuen. Donostiar honen gainean Antonio Zavalak liburu bat atera zuen, *Fermin Imaz, bertso guztiak* izenburuduna (1963) eta Koldo Mitxelenak *Egan* aldizkarian erreseina bat eskaini zion (Mitxelena, 1963)

“Infernuetaco Penac” bertso-paperaren zehaztasunak

Altzoko Imazek bi bertso-paper mota argitaratu ohi zituen: erlijiozkoak eta gainerakoak. Bertso-paper erlijiozkoetan bere izena jarri ohi zuen. Gainerakoak, istiluak ez izateko, bertso-jartzailearen izenik gabe joaten ziren moldiztegira. Gure artikulu honetan “Infernuetaco penac” bertso-saila erlijiozkoa de-nez gero, azken puntuan bertso-jartzailearen izena dator: *Au da modua salvatutzeco/ Imazec derizaquiona*.

Gure bertso-paperak letra larriz *Verso berriac* izenburu generikoa du. Ez du, zenbaitetan bezala, azpi-izenbururik. Ber-

tsopapereko hogei bertso zenbakituak –ia gehienetan bezalaxe– hiru zutabetan emanak daude. Lehen zutabean, lehen zazpiak, 1etik 7ra; bigarren zutabean, bigarren zazpiak, 8tik 14ra; hirugarren zutabean, 15etik 20ra. Izenburu generiko hau zehazteko guk hasierako bertso-lerroa erabili dugu: "Publicatzea comeni zaigu". Bertsopaperaren azpialdean *Puede Impri-mirse Benito Gorostegui* dakar ezkerretara, eta, eskubitara, *Tolosa 22 de Abril de 1864*. Azpirengo dagoen oharra hauxe da: *Tolosa: Pedro Gurruchagaren moldizteguian*.

"Publicatzea comeni zaigu" aleko hogei bertsoak, gorago esan dugun bezalaxe, Antonio Zavalak *Alzo'ko Imaz bertsolaria* liburuan dakartza. Berak erabili duen bertsopaperaren iturria garbiri ematen du Tolosako ikertzaileak (Zavala 1967, 247): Bertso-papera, "Tolosan: Pedro Gurruchagaren moldizteguian", Bonaparte'ren bertso-bilduman, The New Library, Chicago.

Bertsopaper zahar eta ez hain zahar asko, zoritxarrez, galdutzat eman behar ditugu. Zenbaitetan, ezagutzen ditugun bertso-bilduma guztietan, bertsopaper bakarra gordetzen da. Bestela esan, bertsopaper bat moldiztegitik argitaraturik ateratakoan, argitaraldiko bertsopaper argitaratuaren sortatik –dena delako ale kopurutik–, zenbaitetan, ale bakarra gordetzen da. Beste askotan, ordea, ale bakarra ere ez. Zenbait bertsopaperek argitaraldi berri bat edo gehiago izaten dituzte, eta argitaraldi berriek bizialdi berri bat ematen diote bertsopaperari, eta begi-bistakoa denez, bertsopapera gordetzeko aukera gehiago egon ohi dira.

Askotan, ordea, argitaraldi bat edo bat baino gehiago izan arren, argitaraldi bakarreko edo guztietako ale bakarra ere ez da gordetzen. Txirritaren bertsopaper argitaratuetatik, esaterako, hainbat aldiz ale bakarra ere ez da gordetzen ezagutzen ditugun bertsopaper-bildumetan. Antonio Zavalak bertsopaper galdu horietako bertso bat edo beste jendearen memoriatik transkribatu ditu, baina sail osoa –bertsopaperean inprentaturik atera zena– betiko galdutzat eman behar da, zoritxarrez.

Antonio Zavalak transkribatu zuen bertso-paper gure Manuel Antonio Imaz bertso-jartzailearen garaikide zen Luis Luciano Bonaparte (1813-1891) dialektologoaren bildumakoa da. Badakigu Bonaparte printzearen bertso-paper altorra, neurri handi batean, Pio Baroja inprentalari donostiarraren seme Serafin Barojak –Pio Baroja idazlearen aitak, alegia– emandako aleez aberastua zela. Honelaxe dio Pio Barojak bere memorietan (Baroja, 1949, 521):

En la imprenta de su casa, mi padre conoció al príncipe Luis Luciano Bonaparte, gran vascofilo, a quien regaló una colección de canciones vascas, y también a don Modesto Lafuente, a Martínez Villerga, a Mesonero Romanos, a Gaztambe y a don Eugenio de Aviraneta.

Pio Barojak aipatzen zituen “una colección de canciones vascas” direlako kantuak izen-deitura bereko Pio Baroja aitona bere inprentan atera ohi zituen bertso-paperak dira gure ustean.

Luis Luciano Bonaparteren bilduma, garai batean Chicagon zegoena, gaur egun edonoren eskuera dago Euskal Herriko liburutegietan. Guk Euskaltzaindiko Azkue bibliotekako funtsean, 82 argazkian, aurkitu dugu. Era berean, argitaraldi bereko beste ale bat Jose Ignazio Arana (1838-1896) jesuitaren funtsean aurkitu dugu. Zergatik diogu argitaraldi bereko bi ale direla? Bertso-paper bietan, barrenean, hiru argitasun argigarri beraz datozelako. Lehen argitasuna: Pueden Imprimirse Benito Gorostegi. Bigarren argitasun erabakigarriena –hau Antonio Zavalak ere ematen du, zehaztasunez datu guztiak emateko metodo eredugarriaren jabe zelako–: “Tolosa 22 de abril de...”. Datu honek bertso-paper biak egun berean argitaratuak daudela adierazten du. Gordetzen diren bi bertso-paperetan guk zehaztasuna argiro irakurri dugu: “Tolosa 22 de abril de 1864”. Hirugarren argitasuna inprenta eta herriarriak dira: Tolosa: Pedro Gurruchagaren moldiztegiuan.

Lehen argitasuna zentsurarena dugu. 1860ko hamarkadan Tolosan argitaratzen diren zenbait bertso-paper Benito Gorostegiren

baimena daramate. Auspoa liburutegiko *Kristaubidea bertsotan* liburuko hiru bertsopaperetan –1860ko hamarkadakoak hirurak– Benito Gorostegi zentsuratzaillearen baimena daramate.

Antonio Zavalak ematen dituen hogei bertsuetako lau bertso –9, 10, 17, 18– ezabaturik daudenez gero, ezin irakurriak dira. Sail berean beste bi bertso –2, 16– ere osatu gabe daude hitz bat edo gehiago falta dituztelako. Gure asmoa, beraz, gordetzen diren bi aleak erabilirik bertso guztietako hitz guztiak osatzea izango da.

Zilegi bekigu, azkenik, bitxikeria bat ematea bertsopaperaren zahartasuna adierazteko. 1864 urtea Euskal Herriko hiru idazleren jaiotze-urtea izan zen: Unamuno, Azkue eta Txomin Agirre ondarrutarrarena. Gure bertsopapera hiru idazle hauek jaio ziren urtekoa bada ere, hauek baino lehenago munduratu zen: 1864ko apirilaren 22an.

“Infernuetaco Penac” bertso-paperaren transkripzioa

Puntu honetan “Publicatcea comeni zaigu” bertsopapereko hogeitau bertsoak transkribatuko ditugu. Hogeitau bertsoen transkripzioa 1864ko bi aleetan datorren bezalaxe egingo dugu, jatorrizko ortografian zein puntuazioan. Uste dugu *Karmel* aldizkariko irakurle landuak eskertuko duela bertsopapereko bertsoak –mendiko urak iturburuan edatea maite duen mendizaleak bezalaxe– jatorrizko ortografia eta puntuazioan irakurtzea. Gure transkripzio fidel honetan kortxete artean jartzen dugun testu etzana Antonio Zavalak *Alzo’ko Imaz bertsolaria*, 242-247 or., liburuan transkribatu eta argitaratu ezin izan duena da. Badira Zavalak transkribatutako hitzen artean desberdin irakurri ditugunak ere. Bigarren bertsoan bigarren lerroan (2-2) Zavalak “Bera amatu genezala” dakar, guk, ordea, bertsopaperean datorren “Bera amatu gentzala”. Seigarren bertsoko lehen lerroan (6-1) Zavalak “Peligru asko daude munduan”, guk, ordea, “Peligro asco daude munduan” irakurtzen

dugu, hau da, “peligro” hitza “peligru” hitzaren lekuan. Bederatzigarren bertsoko lehen lerroan (9-1) Zavalak “Munduan asko aldean dira”, guk “Munduco suen aldean dira” ulergarriagoa dena ondoren datorren “Infernucoac beroac,/ Pareric eta cabo bagueac/ Ango pena generoac” horrekin hobeto ezkonduz. Eta, azkenik, hamaikagarren bertsoko seigarren lerroan (11-6) Zavalak “Plazorik etzaie etorri”, guk “Plazoric etzaye jarri³”. Hona hemen Zavalak ematen duen moduan:

11. Eguna juan, eguna etorri,
 Urteak juan da etorri,
 Kondenatuen martirioa
 Beti leen beziñ berri;
 Pena luzeak, libratutzeko
 Plazorik etzaie etorri;
 Eternidadean an egon bear
 Maldizioka alkarri.

Bertso hau berau beste modu batera dator 1864ko bertso-paperean:

11. Eguna juan, eguna etorri
 Urteac juan da etorri.
 Condenatuen martirioa
 Beti leén beciñ berri;
 Pena luceac libratutceco
 Plazoric etzaye jarri,
 Eternidadean an egon bear
 Maldicioca alcarri.

³ Kasu honetan gure ustez inportantzia handikoa da “jarri” izatea “etorri” izan beharrean. Antonio Zavalaren transkripzioan potu argi bat dator bi aldiz “etorri” irakurtzen delako. Altzoko Imazek, ordea, “jarri” ipini zuen.

Zavalaren transkripzioko oker txiki hauek, inolako dudarik gabe, bertsopapereko hitzak ezabatuxeak zeudelako da.

Bertsopapereko testuan aditza hitz bakarrean ematen bada, guk ere berdin jarri dugu (3-7) "Nor bere faltaz condenatzen da"; (10-7) "Anche nequetan pagatutcenda". Ezezkako "ez" eta aditza batera jarri ditugu, era berean, (7.3) "ezduanic ezta sartuco"; (7-8) "Ezta izango aiñ charra". Era berean (8-7) "Dem-bora juanda provechubague".

Jatorrizko hitz guztiak argi eta garbiki transkribatzeko arazorik ez dugu izan. Puntuazioan duda bat baino gehiago sortu zaigu. Ez dugu jakin, zenbaitetan, puntu bi edo puntu eta koma jartzen duen jatorrizko eskuidatzian. Dudazko kasuan Antonio Zavalaren irizpideari jarraitu gataizkio.

1

Publicatzea conveni zaigu
 Infernuetaco penac,
 Ara bidetic apartatzeco
 Orain munduan gaudenac;
 Cembat desdicha daucaten entzun
 Engañatu ciradenac,
 Bildur orrequin cumpli ditzagun
 Jaungoicoaren ordenac.

2

Jaungoico onac aguindu cigun
 Bera amatu guentzala,
 Gauza gucien gañean eta
 Progimoac gueroc becela;
 Betico dicha alcantatzeco
 Ala porta quintecela.
 [Izango guerala] castigatuac
 [Gañeracoan bestela.]

3

Jaungoicoa ta naiz progimoa
 Batec ofenditzen badu.
 Erremedioac jarri cizquigun
 Iñor ez gaitecen galdu:
 Penitenciaco sacramentua
 Errecibitu beardu.
 Nor bere faltaz [*condenatzenda*]
 Ori eguiten ezpadu.

4

Aita Eternoa gure criadore
 Cristo erremeditzeco.
 Norc izan bear du valorea
 Jaun ori ofenditzeco;
 ¡Ay motivoac justuac ditu
 Coleran aserratzeco,
 Argati dago infernu ori
 Gaiztoac castigatzeco!

5

Jaungoicoaren poderioa
 Aiñ aundia izanican,
 Infernu ori guciz Cruela
 Berac dauca eguiñican;
 Bere contraco peccariac
 Castigatzea gatican,
 Cer naibagueac izango diran
 Consideratu ortican.

6

Peligro asco daude munduan
Bici gaitecen contuan.
Sententci bana artuco degu
Iltzen gueraden puntuan;
Juez divinoac emango ditu
Bere Tribunal Santuan,
Entzun ditzagun condenatuac
Gueroz cer pena dituan.

7

Pecatu danac eguingo dute
Infernuan su ta garra,
Ezduanic an ezta sartuco
Berac sufritu bearra;
Martirizatzen cirica dabil
Beti demonio zarra,
Ayen arteco bicimodua
Ezta izango aiñ charra.

8

Infernuetan seculetan ez
Consuelo bat bacarra,
Emen antsia, or carrassia
Eta andic deadarra:
Atseguin falso batengatic jo
Calabozoco ondarra.
Dembora joanda provechubague
Bestec badauca negarra.

9

Munduco suen aldean dira
[Infernucoac beroac,
Pareric eta cabo bagueac
Ango pena generoac;
Ara bidean dabiltzanac bai]
 Abill uste[*co eroac.*]
 !Ay icaratu [*bear guinduzque*]
 Gaiztoen paraderoac!

10

Gose egarri mis[*serableac*
Aoa beti samiña,
Quiscalciosa heridac ustel
Usaya eta siquiña:
Sentiduetan miñac aundiac
Aguantatu eciña.
Auche] nequetan pagatutcend[*a*]
 Pecatu erraz eguiña.

11

Eguna juan, eguna etorri
 Urteac juan da etorri.
 Condenatuen martirioa
 Beti leén beciñ berri;
 Pena luceac libratutceco
 Plazoric etzaye jarri,
 Eternidadean an egon bear
 Maldicioca alcarri.

12

Ill nai luquea ta ez conveni
Daude ecin bucaturic,
Igues eguin nai bañan eztago
Ateratzeco lecuric;
Gañera berriz gloria dauca
Norc bere faltaz galduric,
Condenatua oyec pensatcen
Dago desesperaturic.

13

Azquen juicioz infernutarrac
Cristoc nai ditu atera,
Cer causa duen satisfacio
Publicoan ematera;
Lengo corputza emanda berriz
Botaco ditu atzera,
Esan ditudan tormentu oyec
Berriro padecitzera.

14

Infernuan zu izan altzera
Esan lezaque jendeac,
Choraquerian eguin oidira
Modu orretan galdeac;
Ez naiz izandu bañan badaquit
Cerrren dacarren fedead,
Esan diranac eguiac dira
Utzi araco bideac.

15

Etsai gaiztoac convidatutzen
 Gaituzte beren aldera.
 Mundu gucian zabalduzican
 Dago orien bandera;
 Lossinchatuta cepoac bota
 Nai guinduzquea mendera.
 Istillu charra guretzat dago
 Engañatutzen baguera.

16

Icaratuta jarri gaitecen
 Infernu gaizto orrequiñ,
 Ez dezala arren parteric izan
 Oraiñ bici gueranaquiñ:
 Conformatuta egon gaitean
 Gueren Jaungoicoarequiñ,
 Ceru ederra guretzat dago
 [*Cintzo portatua*]requiñ.

17

[*Faltaric*] duanac eguin beardu
 [*Orain lembicico*] ana.
 [*Biotzetican con*]vertitzea
 [*Gueren Jaungoicoagana*]:
 [*Conciencia gar*]bitutzeco
 [*Guero confe*]sio on bana.
 [*Gañeracoan*] galdua dago
 [*Pecatuan il*]tzen dana.

18

Pecatuaren sustrai guciac
[*Quendu ditzal*]gun beingoan.
Ta [infernuc]o] pena oriec
Maiz [*erabili*] gogoan;
Cons[*ideratzen*] badu galdua
Cer [*misseritan*] dagoan,
Len [*becin*] erraz ocasiora
Ezt[*a juango*] urrengoan.

19

Argaltasunez noiz edo berriz
Baldiñ erortzen baguiña,
Lengo gracira biurtutzeco
Eguiñ pronto aleguiña;
Damutu eta aitortzen badu
Norc bere gaizqui eguiña,
Jesucristoren misericordia
Orain daucagu biguiña.

20

Santa Maria Cristoren ama
Bitarteco gucionan,
Amparo bague eztu utzitzen
Ondo escatzen diona;
Arc lagunduaz gueroc sayatu
Logratzeco zoriona,
Au da modua salvatutzeco
Imazec derizquiona.

Pueden imprimirse. Tolosa 22 de Abril de [1864].

Benito Gorostegui.

Tolosan: Pedro Gurruchagaren moldizteguien.

Bertsopaper zaharretako euskara dela eta

Euskal munduko kultura-gizon batek baino gehiagok bertso-paper zaharren euskara erdarakadaz josia dagoela salatu dute. Guztien artean famatuena, beharbada, euskaltzain izatera iritsi zen Karmelo Etxegarai dugu. Karmelo Etxegaraik bere iritzia 1901en eman zuen Gorosabelen *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* obrako azken liburuko “Apéndice” delakoan. Etxegarairen iritzien kontra behin baino gehiagotan aritu izan da Antonio Zavala. 1956ko Arantzazuko biltzarrean zein *Bosquejo de historia del bertsolarismo* lanean (Zavala 1964, 151-154).

Etxegarairen kasu famatuaz landa badugu beste kultura-gizon batzuk bertso-paperen kalitatea gutietsi dutenak erdarakadak salatuz. Hona zer dioen Aita Donostiak, 1931n, Xenpelarren “Azken Juizioko eguna” *Gure Herria* aldizkariko gehigarri musikalean argitaratzen duenean (Donostia 1931 mars-avril):

Le Jugement Dernier que je viens de donner dans ce supplément est la mise en vers d'un sermon que Xenpelar entendit dans l'église de Renteria un dimanche de l'Avent. Xenpelar emploie un langage plein de barbarismes, mais simple et imagé que veut décrire les signes avant-coureurs du Jugement Dernier. La version que je donne est celle d'un exemplaire de “Berso-berris”; je n'y ai changé que quelques détails de graphie ou des erreurs évidentes. Je connais une version ou transcription que J. Mendiague a publié dans son recueil de chants basques “Zazpiak bat”, Santiago-de-Chile, 1916. Les deux mélodies m'ont été dictées par des paysans de Baztan, le 14 décembre 1911.

Pasarte honetan argi eta garbi dio aita Donostiak: “Xenpelar emploie un langage plein de barbarismes”. Eta ez da hola-ko gutiespenak egingo duen aldi bakararra. Urte berean, aldizkari berean, 1931ko hazila-neguilean, Iturrino mutrikuarraren “Markesaren alaba” bertso-sailaren gainean hauxe dio (Donostia, 1931 Hazila-neguila):

Tout ceci et d'autres petits détails sont passés en revue dans ces vers. Ils ne sont pas un modèle de littérature, ni correcte, ni de haute envolée. Ils appartiennent à ce genre, populaire du pays basque espagnol au lexique plein de mots étrangers et d'où la syntaxe même ne sort pas indemne.

Pasarte honetan hiztegiari bakarrik ez dio erasotzen baita sintaxiari berari ere. Gure ustez aita Donostiaren iritzia guztiz okerra da. Hiztegia gaitzestea pekatu larria bada, mila aldiz larriagoa da sintaxiari erasotzea, honetan inoiz okerrik ez dute egiten-eta.

Esan dezagun, azkenik, guk transkribatu dugun "Publicatzea conveni zaigu" bertso papera Azken Juizioaz ari dela. Altzoko Imazek 70 bertso liburuxka bat atera zuen *Verso berriac Azquen Juicioaren gañean* izenburua zuena. Liburuxka hori 1895ekoa dugu, Imaz hil eta bi urtera aterea (1895). Ez dakigu bizi zela lehenagoko ediziorik izan ote zuen⁴. Liburuxka Imazek atera zuela azken aurreko bertsoagatik dakigu:

69. Lembailen erremeditu,
 Eta aurrera Cristoren bide
 Zucen ayetan seguitu
 Ala salvatu ta gloriara
 Berac eramango gaitu,
 Iria oyec guerentzaco
 Imaz-ec ematen ditu.

⁴ Antonio Zavalak Azken Juizioaren bi edizio erabili zituen: bata, Eibarkoa 1916koa, eta, bestea lehen orriaren faltaz, datatu gabekoa. Honelaxe dio berak 231 orrialdean (Zavala 1967, 231): "Bertso auek, bi tokitatik ditugu, bi *folleto* txikitatik: bata, Errezil'ko baserri batetik degu, eta onela dio azalean: 'EIBAR-en Diegoren moldiztegiaren, 1916 garren urtean.'" Besteak azala falta du. Agidanean, azalen jarriko zuan moldiztegiaren izena: guk daukagun ortan etzaio ageri beintzat. Ez dakigu nundik jaso degun"

Azala falta duen hori 1895ekoa izango da, seguru asko. Edizio hori behintzat badago. Baliteke, besteren Altzoko bertsolaria bizi zela egitea. Guk aipatu duguna Julio Urkixoren bibliotekakoa dugu.

Azken Juizioko bertsoak irakurri nahi dituenak hona aldatu dugun bertsoa baino ale ederragoak aurkituko ditu 70 bertso-ko sailean. Gure lan honetako “Publicatzea conveni zaigu” sailak ez du liburuxka horretako bertso bat bera ere, beste hogeitau baina.

Bertsopapereko euskararen ezaugarri gutxi batzuk

“Infernuetaco penac” sailean erdal hitzak bakarrik ikusi nahi dituenak (*amatu, criadore, poderioa, consideratu, juez divinoa, peligro, sententci, tribunal Santuac, pronto, calabozo, falta*, eta abar) ez du testuko edertasun zein aberastasuna dastatuko. Inor egiazko herri euskararen jabe izatekotan, bertsolaria zen. Eta jabetasun eta aberastasun hori bertso-saileko bertso guztietan, inolako salbuespenik gabe, ikusten dugu.

Egin dezagun aitortza bat: guretzat hemeretzigarren mendeko bertsopaper bakoitza erre-zilar oparoak gordetzen dituen kaxa eder bat da. Zenbat eta bertsopapereko testua zaharragoa izan, hainbat eta aberastasun gehiagoren gordailua izan ohi da. Guk artikulu honetan bertsopaper bateko hitz guztiak transkribatzean, ezkutuan zeuden erre-zilarrak irakurleari begietaratzen dizkiogulako irudipena dugu. Urre-zilar horiek, jakina, askotarikoak dira. Hizkuntzaren aberastasuna (hitz-altxorra, aditz-altxorra, kolokazio-altxorra...), sintaxi zuzena, inoiz ere okerrik gabekoa, bertsokera zaharreko testigantza, puntu aberatsak, inolako dudarik gabe. Herri errima segurua, zuzena bezain aberatsa (*samiña/ siquiña/ eciña/ eguiña* edota *baguiña/ aleguiña/ eguiña/ biguña*, edo beste bat *su ta garra/ bearra,/ zarra/ charra*, eta abar)... Aberastasun hauek guztiak artikulu batean ezin azter litezke. Hala ere, zirriborro bezala, hizkuntzaren zertzelada gutxi batzuk eman-go ditugu.

Hitzei dagokienez, hainbat hitz jator datoz: *naibagueac, su ta garra, atsegin, gose-egarri* (konposizio zaharrean), *antsia,*

carrassia, deadarra, ondarra, infernutarra, etsai gaiztoa (*demonio zarra*, ere bai), *istillu charra, argaltasuna* ("ahultasuna" adierazteko), *choraqueria*. Hitzen artean badago, gure ustez, ustekabe zoragarri bat baino gehiago. Hamargarren bertsoan, esaterako, *quiscalcioa* dator. Hitz hau Antonio Zavalak osorik transkribatu ez zuen bertsoetariko batean dator. *Kiskalzio* hitza *-txikizio, ukazio, deizio, ernegazio, amorratio, segizio* eta *asmazio*⁵ bezala gure literatura osoan, Orotariko Euskal Hiztegian datorrenez, Lardizabal zaldibitarrek darabil. Gure testuko testigantzaren arabera, Gipuzkoan erabiltzen zen hitza dela garbi frogatzen da.

Aditzak modu egoki baino egokiagoan erabiltzen dira. Zenbait aditz aipatzearren: *conveni, apartatu, entzun, los-sinchatu, jarri, aserratu*, eta abar. Gipuzkoako euskaran, XIX mendean "erortzen bagina" baldintzak egiteko sistema (besteak beste, Iturriaga alegilariaren 1841eko *Arte de aprender la lengua castelana* liburuan dokumentaturik, eta, lehenago ere, itxurak direnez, erabilia), gaur eguneko "eroriko bagina" eraren ordain zaharra.

Bihurkariaren erabilera zuzena (15-1,2) *Etsai gaiztoac con-vidatutzen/ Gaituzte beren aldera*; (16- 5, 6) *Conformatuta egon gaitezaz/ Gueren Jaungoicoarequin*. Baina *Ceru ederra guretzat dago/ Cintzo portatuarequin* edo (15-7,8) *Istillu charra guretzat dago/ Engañatutzen baguera*.

Nora kasua bi aldiz adnominal gabe (1-3) *ara bidetic apartatzeco* (9-5) *Ara bidean dabiltzanac bai*; eta behin, ordea, adnominalarekin (14-8). *Utzi araco bideac*.

Instrumentalaren erabilera (3-7) *Nor bere faltaz condennatzen da* edo 12-6 *Norc bere faltaz galduric*; (13-1,2) *Azquen*

⁵ Atzizki honi ez zaio gure artean, beharbada, duen garrantzirik eman. Azkueren *Morfologia vasca* famatuan –gure ustean oraindik ere atzizkibidea aztertzeke balio handia duen liburua– ez dugu aurkitu. Bizkaiko euskaran *-zio* delakoa *-zino/-ziño* dugu: *laguntziño, gogoraziño*, eta abar.

juicioz infernutarrac/ Cristoc nai ditu atera. (19-1, 2) *Argalta-sunez noiz edo berriz/ Baldiñ erortzen baguiña.* (19-5,6) *Arc lagunduz gueroc sayatu/ Logratzeco zoriona.*

Adberbio denborazkoak: *gueroz, seculetan* (pluralean, “sekulan” hitzaren adiera indartuarekin), *berriz, berriro, beingoan, urrengoan, maiz, noiz edo berriz*; modua adierazteko: *erraz, guciz*. Era adberbialak: *cirica, maldicioca*.

Bost numerala “asko” adierazteko (8, 7,8) *Dembora joanda (provechubague/ Bostec badauca negarra. Cerren partikularen erabilera (14, 5-6) Ez naiz izandu bañan badaquit/ Cerren dacarren fedeac.*

Testu guztiko euskara, bestalde, koherentzia handikoa izan ohi da *bague* hitza beti izango da *bague*, zein bakarka zein konposizioan: *naibague*.

Puntu honetako datuak zirriborro batzuk baizik ez dira. Bertsopapereko euskararen aberastasunak ez ditugu, inondik inora ere, puntu honetan agortzen. Guk puntu honetan aberastasun gutxi-gutxi batzuen berri eman nahi izan dugu baka-rik.

Bukaera bezala

Gure lan xume honek helburu nagusizat Altzoko Imazek, 1864an, argitara eman zuen “Publicatzea conveni zaigu” bertsopapera transkribatzea izan da. Bertsopaper honetako bertso-saila Antonio Zavalak argitaratutako 1967 urteko *Alzo'ko Imaz bertsolaria* liburuan eman bazuen ere, lau bertso ezin ziren inondik inora irakurri eta beste zenbait ilun gelditzen ziren hitz bat edo beste transkribatu ez zituelako, eta beste zenbait –gutxi, baina gora handikoak– gaizki transkribatu zituelako. 1864ko bertsopapereko bertso-saileko testua transkribatu ondoren –hitz bat beraren hutsunerik gabe– hainbat lanetarako ikerbideak eskaintzen ditu.

Bertsopaper bakar baten transkripzioa gauza apurra irudituko zaio bati baino gehiagori. Bere apurrean, ordea, baditu –gure ustean betiere– edozein begik neurtu ezin dituen aberastasunak. Lan hori, ordea, besteren esku uzten dugu. Bertso-papera, gorago esan dugun bezala, bertso-jartzailearen trebetasunaren erakusgarri ezezik, hemeretzigarren mende Erdiko Gipuzkoako euskara ederraren gordailu ere bada.

Erabilitako bibliografia

- ANDUAGA, Graziano (1963), *Egunsentiko txoria*. Edizioaren prestatzailea aita Luis Billasante. Auspoa liburutegia 30.
- –, (1965), *Bertso-bilduma*. Edizioaren prestatzailea aita Luis Billasante. Auspoa liburutegia 52-53.49
- BAROJA, Pio (1949), *Desde la última vuelta del camino. Memorias. Familia, infancia y juventud en Obras completas VII*; Biblioteca nueva Madrid. Pg. 521.
- ESNAL, Pello (2015), *Antonio Zavala, zauria hauspo*. Auspoa liburutegia 332.
- –, (2020), "Bertso paperak, lehen eta orain", *Bertsolari aldizkaria*, 118 zenbakia, 64-87.
- HARITSCHELHAR Jean (1965), "Auto-censure et rigueur scientifique dans les recherches folkloriques", *Gure Herria*, ekaina, 36-40.
- IMAZ, Manuel Antonio (1895), *Verso berriac Azquen Juicioaren gañean*. J. Lopez-en moldizteguiari, Bergaran.
- ITURRIAGA, Agustin P. (1841), *Arte de aprender la lengua castellana: para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipuzcoa*.
- LAFITTE, Piarres (1972), *Mañex Etchamendy bertsularia (1873-1960)*. Auspoa liburutegia 109-110.
- LEKUONA, Juan Mari (2008), "Bertsopaper", *Literatura terminoen biztegia*, 127-128.
- MENDIZABAL, Agustin (2017), *Hau leku aitorra: Oiartzun hara-neko kanta eta bertso zahar bilduma berria*. Oiartzun.

- MITXELENA, Luis (1963), “F. Imaz, bertso guziak Tolosa 1963”, *Egan*, 146-147.
- PERURENA, Patziku (2007), “Berastegui 1823: “Bertso berriac”, *Fontes Linguae Vasconum*, año n° 39, n°106, 483-504.
- SATRUSTEGI, Jose Maria (1965), *Bordel bertsularia*. Auspoa liburutegia 45-46.
- –, (1967), *Luzaide'ko kantiak*. Auspoa liburutegia 65.
- URIBE, Kirmen (2001), *Bitartean heldu eskutik*. Susa.
- ZAVALA, Antonio (1956) “Bertso berri billa Euskalerrria zear”, *Euskera*, 1956, I, 233-245.
- –, (1962), *Bilintx, Indalezio Bizkarrondo. Bertso ta lan guziak*. Auspoa liburutegia 12.
- –, (1963), *Fermin Imaz. Bertso guziak*. Auspoa liburutegia 24.
- –, (1964), *Bosquejo de historia de bertsolarismo*, colección Auñamendi, n.º 37, 98-106.
- –, (1966), *Udarregi bertsolaria*. Auspoa liburutegia 56.
- –, (1967), *Alzo'ko Imaz bertsolaria*. Auspoa liburutegia 68-69-70.
- –, (1969), *Xenpelar bertsolaria*. Auspoa liburutegia 88-89-90.
- –, (1980), “Bertso-paperak” *Jakin*, Apirila-Iraila 14/15 (bigarren aldia), 1980, 115-134.
- –, (1984), *Kristaubidea bertsotan*. Auspoa liburutegia 174.
- ZULAIKA, Jose Gonzalo “Jose Antonio de Donostia” (1931), “Azken juizioa. Bertso-berriak’ composés par le pertsulari Xenpelar “, *Gure Herria* 1931 mars-avril, musika gehigarria.
- –, (1931), “Bertso berriak amoriyo finarenak”, *Gure Herria* 1931 novembre-décembre, musika gehigarria.

Xabier Kaltzakorta

LEKUKOTASUN ARKEOLOGIKOAK ARABAN. ERROMATARREN PRESENTZIA

Karmel aldizkariaren aurreko bi zenbakitan (*Karmel* 2018-3, 17-36, eta *Karmel* 2021-3, 27-42) Gipuzkoako eta Bizkaiko erromatarren garaiko aurkikuntzak oso era laburrean aurkeztu genituen, mapa bereziak ere eskainiz. Era laburrean izan arren, informazio zehatza eskaintzen genuen, erromatarrek eta euren lagunek gure artean izandako presentziari eta kulturari buruz aztarnategietan lekukotzat gertatutako aztarnei buruz.

Oraingo honetan ere bide berdinetik jarraituko dogu Arabako lurraldeari dagokionez. Arabak, erromatarren garaian, bide garrantzitsuak zituen eta beste probintzien egoeraz erkatuz eraginkortasun handiagoa. Horretaz gainera, egoera erromatar horri esker, kristautasuna ere askoz lehenago zabaldu zen bertan, hainbat aztarna arkeologikotan eta literatura bidezko berrietan ageri denez...

Beraz, Araban, hainbeste bide erromatar zituen lurraldean, oso nabaria da erromatarren presentzia. Azken hamarkadetan burutu diren ikerkuntza arkeologiko ugariak argitara atera dute probintzia honetan erromatarrek bizi izandako egitatea. Garrantzia handiko Indusketa-lekuak ditugu bertan: Kabriana, Salbatierrabide, Inausketa, Ronillas, Arkaia, Atxa, Aloria, Las Ermitas, Riberon, Carastako herrixka, Eliza, Lacorzanillako Arce zubia, Buradon Gatzaga, etab. Egitate honen ezaugarriak Arabako Arkeologia museoan ikus daitezke [1]...

Hainbat idazlan argitaratu dira aldizkari berezietan, batez ere *Arkeoikuska*, *Estudios de Arqueología Alavesa*, *Isturitz*, *Veleia*, *Kobie*, eta abarretan...

Era berean, aipatu beharrekoak ditugu Arabako lurraldeari dagokionez obra orokorragoetan erromatarren aztarnen edota kulturaren laginen berri eskaintzen dizkiguten erromatarrei buruzko ikerkuntzen bidezko datuak nahiz aurkikuntzak. Horrela, esaterako, aipatzekoak ditugu 1967-1974 urteen artean Juan Carlos Elortzak eginak [2], Elisa García Retes anderearenak.... [3], Francisca Sáenz de Urturi Rodríguez anderearenak [4], etab. Aipamen berezia egiten diogu A. Llanos Ortiz de Landaluze jaunak zuzendutako *Carta arqueológica*.... obrari [5]...

Jakina, gure esku ditugun aurkikuntza ugariak, objektiboki begiratuta, era oso ezberdinean kontuan hartzekoak dira, hain zuzen ere duten balio historikoari zein soziologikoari dago-kienez, erromatarren presentzia oso ezberdina delako aurkikuntzaren kokalekuaren arabera. Esaterako erromatar nekropoli batean edota hiri erromatar batean aurkitutakoek garrantzi oso ezberdina izango dute lantza edo ontzi baten aurkikuntzaz erkatuz.

Aurkikuntzaren bat izan duten herriak eta lekuak aipatzera-koan, laburkiro bertan aurkitutako objektuak aipatuko ditugu; hain zuzen ere honelako aurkikuntzak ditugu: eltzegintza erromatarrak, orratzak, anforak, epigrafeak dituzten aldareak, oroi-menezko aldareak, erromatarren kokaguneak, galtzada erromatarra, erromatar kronologia duen hiria, erromatar zeramika arrunta, zehaztasunik gabeko erromatarren beranduko zeramika, erromatarrei egotzitako zeramika, erromatarren sukaldeko zeramika, hiri erromatarra, jainkoak, eraikin publikoa, aroztegi-ko elementuak, metalurgiako elementuak, estela eta hilarri erromatarrak, inskripzio erromatarrak, lanparak, 'Macellum', 'mansio', brontzezko eta burdinazko metalak, harresiak edota hala-koen hondarrak, goi-inperioko nekropoliak, beranduko

erromatar garaiko nekropoliak, erromatar txanponak, erromatarren okupazioa, ‘oppidum’, ‘opus cimiterium’, zubia, lantza muturra, beirazko ontziak, taberna, antzokia, teila erromatarrak, termak, *terra sigillata afrikarra*, *terra sigillata galikoa*, *terra sigillata hispanikoa*, *terra sigillata italikoa*, bide-zatiak, hiri erromatarra, erromatarren garaiko aztarnategia etab.

Agurain/Salvatierra: I-III. mendeen arteko zazpi txanpon; hilarri inskripzioduna; inskripzio erromatarra.

La Magdalena (Agurain): erromatar bidearen aztarna batzuk La Magdalena ermitan.

Alegria/Dulantzi:

Henaio gazteluko Kastroa (Durantzi): Tulloniori buruzko aipamena (aberria edo dibinitatea) dago. Inskripzio erromatarrak...

San Martin (Dulantzi): “kale baten inguruan lehen biztanleen gunea, hots, haitzetako izaera duten egitura zulatueta oinarriak dituena, eta material galkorretan jaso eta harrizko horma-egiturak dituen beste bat detektatu dira. Arabako beste erromatar aztarnategietan dagoeneko ikusitakoa kontuan izanik, aldaketa garrantzitsu hau K.o.ko I. mendeko azken urteetan edota hurrengo mendean gertatu zela dirudi. Merezi du agerpen hau azpimarratzeak, geroagoko faseetan, testuingurutik kanpo, batez ere beranduko eliza handian berrerabilitako erromatarren hilarri multzo handian agertzen delako. Halakoak bertan izateak, besterik gabe, goi-inperioan nekropoli bat egon zela hurbilean adierazten du. Arreta eskatzen du, era berean, bertan erromatarren zehaztasunik gabeko beranduko zeramika agertzeak eta IV-VI. mendeen arteko ezaugarriak dituen zeramika finik ez aurkitzeak”. Lau erromatar txanpon...

San Pelaio, Dulantziko nekropolia: San Pelaio muinoak badauka erromatarren aztarna txikiren bat edo beste (goi-in-

periokoa); nekropolia orokorrean behe-inperio garaikoa da; garrantzitsua hilobiratze-metodoa, VI-VII. mendei dagokiena izan daitekeelako...

Angostina (Dulantzi): bi “mansio” motako estela Astorga-Bordele arteko galtzada-bidean (kokagune hau ‘Tullorium-en mansio’ izena duena dela uste da); aztarnategi honek honakoak ditu: termak (I-II. mendeetakoak); *terra sigillata hispanikoa*, zeramika arrunta; goi-inperioko kronologia.

Amurrio:

Parrokiako zorupean: material zeramikoa: *sigillata*.

Elaxazar mendia (Amurrio): hondakin material gutxi batzuk: plater ertz baten zeramikazko zati txiki bat, behar bada erromatarren garaiko zeramika arruntari egoztekoa. Janariak prestatzeko nahiz mahaian zerbitzatzeko sukaldeko ontzi bat izan daiteke (K.o.ko II-IV. mendeen artekoa).

Argantzun: material zeramikoa: *sigillata*; inskripzioa duen hilarria.

San Estebanen muinoa (Argantzun): hilarri inskripzioduna.

Araiko:

Uralde (Araiko): hurbileko nekazaritza-kokagune bati dagokion zabortegeiak (III. mendekoa); Trebiñuko erromatarren kokagunea.

Armiñon:

Lacorzanilla (Armiñon): bide-zatiak kontserbatzen ziren.

Las Lombas (Armiñon): material zeramikoa: *terra sigillata* apaindua; arrunta....

Pasabillanos (Armiñon) material zeramikoa: *terra sigillata*; arrunta....

Arrastaria:

Aloria (Arrastaria) material zeramikoa; *sigillata*; arrunta. Eraikuntza-aztarnak, erromatarrei egotzitako zeramika-zati ugariarekin batera, eta metalezko beste objektu batzuk; *terra sigillata hispanikoa* eta mahaiko zeramika arrunta (II-IV. mendeetakoa). Erromatarren kokagunea I-V. mendeen artekoa: txanpon biltokiak (K.o.ko II. mendekoak); baita IV-V. mendeen arteko *terra sigillata* erako zatiak. Industria instalazioa; kokagunea Deobriga-Flaviobriga arteko ibilbidean, (I-III. mendeetan). Nekazaritza giroko hiria; IV-V. mendeetako material zeramikoa.

Artomaña (Arrastaria): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Delika (Arrastaria): material zeramikoa: *sigillata*.

Frato (Aloria, Arrastaria): *terra sigillata hispanikoaren* hainbat zati, txanpona, etab.; goi-inperio garaian industria instalazio bat egon zen.

Arratzua-Ubarrundia:

Aldaia (Arratzua-Ubarrundia): material zeramikoa: *terra sigillata*.

Ania (Arratzua-Ubarrundia): material zeramikoa: *terra sigillata*; arrunta.

Landa (Arratzua-Ubarrundia): material zeramikoa: *terra sigillata*; arrunta.

Arriola: Andre Mariaren Zeruratzearen parroikia-eliza: bi estela.

Artziniega: epigrafea duen aldarea; inskripzio erromatarra. Sandao Vimumburus (dibinitatea).

Arteako Andre Mariaren santutegia (Artziniega): erromatarren garaiko aztarnak aurkitu ziren (*sigillata* eta IV eta V. mendeetako zeramika arrunta).

Asparrena:

Ilarduia (Asparrena): estela zatia. 3 inskripzio erromatar.

Ilarduia: ‘Los Gentiles’ (Ilarduia): Konstantino I.aren txanpon bat.

Ilarduia: Allaran-Surbi (Ilarduia): txanpon bat.

Albeiz/Albéniz (Asparrena): erromatar bidearen zatiak; material zeramikoa: *sigillata*; arrunta; epigrafia duen hilarria.

Araia (Asparrena): epigrafia duen aldarea; bi hilobietako hilarri. Inskripzio batean Aituneo jainkoaren aipamena dator. 5 erromatar inskripzio. Ninfas jainkosari buruzko inskripzio bat...

Atadoi (Asparrena): material zeramikoa: *sigillata*.

Ibarguren (Asparrena): inskripzioa duen hilobietako hilarria.

Arriola: Andre Mariaren Zeruratzearen parroikia-eliza (Asparrena): hilarria; zutabe miliarioa; hilobietako estela inskripzioduna.

Urabain (Asparrena): estelak; inskripzio atalak dituen hilobietako estela.

Urabain: San Joan Bataiatzailearen parroikia-eliza (Asparrena): estela bat.

Atauri: txanpon bat.

Los Moros koba (Atauri): beranduko *terra sigillata galikoa*.

Baños de Ebro/Bainueta: inskripzioa duen hilobietako estela; estela bat; txanpon bat; material zeramikoa: *sigillata*.

Los Ventriles (Bainueta): material zeramikoa; *sigillata*.

Barrundia: Santa Luzia (Barrundia): material zeramikoa.

Berantevilla: txanpon bat...

Ancio (Berantevilla): material zeramikoa: *sigillata*.

Coto Casanova (Berantevilla): material zeramikoa: *sigillata*.

Vetrusa (Berantevilla): material zeramikoa: *sigillata hispanikoa*, apainik gabea eta apaindua; erromatar arrunta, etab.

Bernedo:

Galtzarra (Bernedo): material zeramikoa: *sigillata*.

San Andres 1 (Bernedo): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta....

San Bartolome (Angostina, Bernedo): epigrafeak duen hilobietako estela; oroitarri epigrafiaduna; aldare inskripzioduna; epigrafiarik gabeko estela zatia.

Puerto de la Aldea de la Población (Oion): txanpon bat...

Buradon Gatzaga/ Salinillas de Buradón: Buradon: beranduko okupazioa, IV-V. mendeetakoa, eta garai horretako material higigarria eta, baita beranduko *terra sigillata hispanikoa* ere. Nekazaritza-kokagunea; beranduko erromatar 'castellum' bat izan zitekeena. Iraupenezko kokagunea (IV-VI. mendeetakoa); beranduko *terra sigillata galikoa*. Kristau kultuan erabiltzeko eginiko lehen eraikina (IV-VI. mendeetakoa), 17 x 6 metroko plano errektandula duena.

Ekora/Yecora:

Eskide (Ekora): material zeramikoa: *terra sigillata galikoa*.

La Solaña (Ekora): material zeramikoa: *sigillata*.

Elburgo/Burlegu: *Añua* (Bulergu): material zeramikoa: arrunta, erromatar anfora.

Elvillar/Bilar: *Sorginaren txabola / Chabola de la Hechicera* (Bilar): material zeramikoa: *terra sigillata* motaren hondakinak.

Espejo: *Las Ermitas/Barcabao* (Espejo): aztarnategian aurkitutako arkeologia-izaerazko stratigrafiatzko unitateak batez ere goi-inperio garaiko fasekoak dira; kronologiaren arabera K.o.ko I. mendaren erdialdearen eta II. mendearen artekoak zirela egiaztatu zen. Alde batzuetan oraindik jatorriko kokagunearen azpiko hondakin arkeologikoak kontserbatzen ziran; horiek argi erakusten zuten kokagune hau behe-inperio garaian (gutxienez K.o.ko V. mendera arte) okupatua izan zela. Erromatarren garaiko kokagunea; norberaren ostilamendurako metalezko elementuak; ‘trapezoide formako burua’ duten orratzak; nekazaritza-kokagunea; ‘mansio’ bat Ebroko bailara Kantauriko kostaldearekin (Deobriga/Flaviobriga) lotzen zuen bidean; okupazioa I-V. mendeen artean; inskripzioak dituen hilarria. Ontzigi-learen 14 marka *terra sigillata* deritzanean: *sigillata hispanikoa*, *sigillata italikoa*, *sigillata hispaniko afrikarra*.

Foronda: inskripzio erromatarra.

Gasteiz.

Salbatierrabide (Gasteiz) nekazaritza kokagunea; ‘mansio’ Astorga-Bordeleko galtzadako ibilbidean; material zeramikoa: *sigillata*; arrunta...; txanpon bat...

Arkaia (Gasteiz): K.o.ko I eta II. mendeetan izan ziren hiri honen unerik gorenak; garapenik handiena II. mendean lortu zuen; III. mendean hasi zuen goibehera eta IV. mendean nabarmendu zen; aurkitutako material ezberdinen artean bereziki zeramikazkoak (*terra sigillata hispanikoa*) ditugu; beira, metalezko piezak, hezur-industria (orratzak)

etab.; Bordeletik Astorgara zihoan *Iter 34* galtzada erromatarren ibilbidea egiaztatzen da; bertan zeramika erromatarra (T.S. *italikoa*. zeramika arrunta, anforak, argiontziak, horma finak) biltzen dituzten zenbait biltoki daudela; ‘mansio’ bat Astorga-Bordele galtzadako ibilbidean; terma-egitura multzo baten hondakinak (I-III. mendeetakoak); I-II-IV. mendeetako 12 txanpon; oroitze-aldarea....

Mariturri (Armentia, Gastiz): estatua txikia *Iter XXXIV*.ean; geralekua edo establezimendua galtzada erromatarrean (IV. mendekoa); erromatarren garaiko nekazaritza izaerazko biztanle-gunea, I. eta IV. mendeen artekoa; 12 inskripzio erromatar.

Betoñu (Gazteiz): material zeramikoa: bi anfora.

Aretxabaleta (Gazteiz): Futina II.aren txanpon bat.

Argandoña (Gasteiz) (Gasteiztik nahiko aldunduta): erromatar bidearen aztarna batzuk...

Ariñiz (Gasteiz): aztarnategia *Iter XXXIV*.aren ondoan; erai-kin-hondakinaren aurkikuntza (mosaikodun zoladura); termen instalazioekin zerikusia duten ohiko objektu batzuen aurkikuntza: material zeramikoa: *sigillata*; brontzezko txanpona.

Atxa aztarnategia (Gasteiz): II. mendekoa: *terra sigillata hispanikoaren* materialak, zeramika arrunta, hondoa apaindua duen beirazko botila bat, burdinazko iltzeak eta txapak, berunezko bi pisu, etab.; guzti hori etxe baten inguruan.

Santa Maria katedrala (Gasteiz): geroago Gasteiz/Vitoria hiria kokatu zen muinoaren gainean kokaguneren bat egon zen orain dela bi mila urte inguru; baina, IV. mendeko txanpon bat baino ez dugu aurkitu; irauñ duten hondarren arabera ez zela okupazio esanguratsua izan dirudi.

Zerio (Gazteiz, Estibalitz ondoan): material zeramikoa: *sigillata*.

Errekaleor (Gasteiz): zutabe miliarioa.

Foronda (Gasteiz) hilarri inskripzioduna...

Bengoa Gasolindegia (Subillana, Gasteiz): material zeramikoa: *sigillata*.

Gobeo (Gasteiz): aztarnategi erromatarra; material zeramikoa: *sigillata*.

Gometxa (Gasteiz): hilarri inskripzioduna.

Landatxo (Gasteiz) zulozko biltegiaren aztarnategia: material zeramikoa: *sigillata*.

Los Balcones (Olarizu mendiaren barrenean, Gasteiz): material zeramikoa: *sigillata*.

Margarita (Gasteiz): hilarri inskripzioduna.

Mendiguren (Gasteiz): hilarri inskripzioduna.

Petrikiz (Arkaute, Gasteiz): material zeramikoa: *sigillata*.

Erretana (Gasteiz): material zeramikoa: *sigillata*.

Erretegana (Foronda, Gasteiz): material zeramikoa; *sigillata* hispaniko apainik gabea eta apaindua: erromatar arrunta.

Abendaño erreka / Rio Batan (Gasteiz): material zeramikoa: hilarriak.

San Martin (Astegieta, Gasteiz): hilarriak.

Turpitzeta (Lermanda, Gasteiz): material zeramikoa: *sigillata*, etab.

Zuatzu (Gasteiz): galtzada erromatarraren aztarnak.

Miñao/Miñano Mayor (Gasteiz): epigrafea duen harrizko aldarea. Helasse jainkosari aipamena egiten zaio.

Gaubeako Osma: 2 inskripzio erromatar.

El Manzanal (Osma): *terra sigillata galikoa*.

Gereñu:

Ozabal: zeramika erromatarra: motarik ugariena *terra sigillata hispanikoa*; ohiko zeramika pixka bat...

Guardia: *Terra sigilla* motako zatiak daudela ikusi da, hala-koen artean TSI laginezko lau ale (zigilu bat barne) izanik. Era berean, nabarmentzekoak dira mahaiko zeramika arruntaren kopurua nahiz anfora eta mortairu hondarrak. Horrek guztiak alde honek okupazio handia izan zuela erromanizazio garaira arte adierazten du, gutxienez K.o.ko I. mendearen azkenera arte edota II. mendearen hasiera arte. Txanpon bat; inskripzioa duen harrizko aldare txiki bat; bi inskripzio erromatar; baita jainkoen izenak, hala nola, Lares Quadriviii, erregistratu dira. Erromatarren zibilizazioa bizi izan zuen; TSI eta TSH motako zeramika hondakinak daude; K.o.ko I eta II. mendeetakoak.

El Campillar (Guardia): material zeramikoak: *sigillata*.

El Cerrado (Guardia): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta....

Hoyako asentua (Guardia): hilarri zatia.

Eliza (Guardia): nekazaritza ustiapenerako nekazaritza-kokagunea; ‘dolia’ ontziaren hondakinak eta eraikuntzarako materiala aurkitu ziren; baita *terra sigillata hispanikoa* ere. Kobetako bizimodua; beranduko inperioaren garaiko okupazioa (IV-V. mendeen artekoa); *terra sigillata afrikarra*.

Logroñoko Bideko ‘Las Pilas’ (Guardia): buztinlariaren taile-rrari dagokionez, labea eta toki gehigarriak ageri dira; bestalde, material ugari dago, batez ere zeramikazkoa, *sigillata hispanikoa*, etab...

Los Husos (Guardia): kobetako bizimodua; behe-inperioa okupazioa; Galiako hegoaldeko *sigillata* motaren presentzia; beranduko *terra sigillata galikoa*.

Peña Parda (Guardia): zeramika-aztarnak daude: erromatarren ohiko zeramikaren 7 zati, sukaldeko erromatar zeramikaren 3 zati, beranduko *sigillata hispanikoaren* 25 zati eta DSP (Derivées de sigillée paléochrétienne) motako 3 zeramika zati; proposatzen den kronologia K.o.ko IV. mendearen azkenalditik VI. mendera artekoa da; beira hondakinak; objektu metalikoak...

Harana/Valle de Arana:

Elizmendiko Andre Mari (Kontrasta, Harana): inskripzioak dituzten hilarriak eta estelak.

Ircio: inskripzio erromatarra.

Iruña/Veleia: Garrantzi handiko gune erromatarra izan zen Iruña/Veleira hirian, E. Gil Zubillagak deskribatzen duenaren arabera interes handiko hainbat gauza erregistratu dira: goi-inperioko bi “domus”; mosaikodun zoladura; bi “taberna”; ‘instrumentum domesticum’ zeritzana anfora aztarnez eta biltegi-ratzeko zeramikaz osatzen zen; nabarmentzekoa da Ponpeia Valentina-ren ‘domus’ (etxea); ‘cardo maximo’ edo bide nagusiaren ondoko eraikina; baita, Ebro haraneko tokiko ekoizpe-nak (Errioxako *terra sigillata* hispaniko berantiarra) eta Galia-tik ekarritakoak (DS-P, Dérivée de sigillée paléochrétienne)... Beranduko harresia, etab...

Aztarnategi garrantzitsua; Augustea/Julio-Claudia garaiari dagokion hiria; zeramika torneatuen aurkikuntza, txanpon elementuak, *sigillata hispanikoa*, etab.; eraikuntza jarduerak edota etxeak hirian (I-II.mendeetan); antzokia, termak eta eraikin publikoak. Arotzeriako elementuak nahiz arotzeria, nekazaritza, sukaldaritza eta hargintzako lanabesak; metalurgia-jardueren aztarnak; medikuntza eta arrantzarako tresnak, pertsonen jantziak, etab.

Bertako biztanleen herrixka eta erromatarren garaiko hiria; ‘mansio’ bat Astorgako galtzadako ibilbidean... Eraikinak hirian: bi taberna, patio bat, atrio txikia; erromatarren beranduko harresia; ‘castellum aquae’ bezalako eraikin publikoak...; kilometro eta erdiko perimetroa barru hartzen duen harresia, seguruenik III. mendearen azkenaldikoa. Ehorzteak sakabanututa harresiz inguratutako eremu barruan nahiz harresi ondoan (I-II. mendeetakoak); ‘macellum’ (Iter XXXIV biderearen taxuketa), harresia eta Pompeia Valentinen ‘domus’. Britania erromatarrean hornitutako gerrari baten lotzeko belarria (V. mendekoa); material ugari: marmolak, mosaikoak, emakume baten eskultura, Thoracato gorputz-enborra, estelak eta epigrafeak, etab.; zeramika arrunta, *sigillata*, etab.; *sigillata hispanikoa*, *sigillata galikoa*, inskripzioak dituzten hilarriak, *sigillata afrikarra*; txanponak: sei txanpon. Kultua gauzatzeko al-darea (K.o.ko II eta III. mendeen artekoa).

Billoda (Iruña-Oka): Erdi Aroan hainbat aldaketa izan zituen erromatarren jatorriko zubia. Beraren eperik garrantzitsuena I-II. mendeen artekoa izan zen; IV-V. mendeetako zeramika afrikarrak eta galikoak: Ponpeiaren ‘domus’; IV-V. mendeetako materialak.

Arkiz (Tresponde): material zeramikoa: *sigillata*....

Sansolo (Tresponde): disko-formako estelak.

Tresponde/Trespuentes (Iruña-Oka): zubia.

Laña (Trasponde): zubia.

Trespondeko errota (Iruña-Oka): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Iruraiz-Gauna:

Luzcando (Azilu /Iruraiz-Gauna): hainbat estela eta hilarri erromatar....

Sominarreka (Gauna): material zeramikoa: *terra sigillata* eta zeramika arrunta (I-IV. mendeetakoak).

Kabriana: Erromatar hiria; zeramika *sigillata hispanikoa*, apainik gabea eta apaindua; erromatar zeramika arrunta, txanponak, argizuloak, aldareak, etab. (II-IV.mendeetakoak.); 4 inskripzio erromatar. Mosaikoak, txorrotak, Dianaren irudia. Arotzeriako gaiak; arotzeria, nekazaritza, hargintza, metalurgia, medikuntza-kirurgia eta abarretarako lanabesak. 27 txanpon dituen biltokia (IV. mendekoa); hiri gunean eginiko ehorzteak dituen nekropolia (IV-V. mendeetakoak); *terra sigillata hispanikoa, italikoa, galikoa* eta *afrikarra*... Nekazaritza-kokagunea; 'mansio' bat Astorga-Bordele arteko galtzadabidean. Aipamenak Loci bezalako jainkoei; 'Nymphis bonis eta locos'; instalazio termalak, etab.

Kanpezu:

Santikurutze Kanpezu: hilarri inskripzioduna, desagertuta.

Orbiso (Kanpezu); txanpona.

Karanka: *Lastra kastroak* (Karanka): bi txanpon.

Kripan:

El Lozano (Kripan); *terra sigillata afrikarra*.

Kuartango:

Andagoste (Kuartango): Andagosteko erromatarren beranduko kokagunea; uste da Andagosteko kokagunea K.a.ko 40tik 30. urtera arteko hamarkadan zehar egin zela. Txanponek erakusten dutenaren arabera, jatorria hamarkada horretan Hispania gobernatu zuten Augustoren 'legatiek' burrututako kanpainaren batean izan dezake. Oraindik argiago ikusi ahal izan da beranduko errepublika garaikoa izan ze-

la Andagosteko ezarkuntzaren kokapena eta jatorria, aldi bateko kanpamendu militar baten presentzia egiaztatuz. Kantauriko Gerrak hasi aurreko datetan beraren inguruan borroka-gune bat kokatzen da. Jardunaldi honetan, besteak beste, honako hauek eskuratu dira: 49 kaliga-iltze, 10 hiltze handi, bost txanpon, Alesia motako 'fibula' oso bat eta saskaiaren esku-babes bat. Hauek aurreko jardunaldietakoei gehituz, mila piezatik gorako kopurua egiten dute.

Lakozmonteko Solacuevako haitzuloa (*Jokano*, Kuartango): material zeramikoak; erromatar txanponak, etab.

Urbina Basabe (Kuartango): erromatar inskripzioak dituen hilarria.

Yespa (Kuartango): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Lantaron:

Bergonda/Bergüenda: (Bergonda igarota gero, errepidearen eta ibaiaren artean): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Bergonda: Sobron (Bergonda): txanpona; material zeramikoa: *sigillata*...; erromatarren beranduko garaiko materialak aurkitu dira.

Las Casillas (Caicedo Yuso): material zeramikoa: *sigillata* idazki-moldearen zatia duena; arrunta; aztarnategiko epigrafe bat *sigillata* gainean *terra sigillata* deritzanean.

Comunion/Komunio (Salcedo): aldarea; estela.

Fontecha/Fontetxa (Bergonga): material zeramikoa: *sigillata*...

La Huerta (Bergonga): material zeramikoa: *terra sigillata galikoa*.

Las Pedreras (Salcedo); material zeramikoa: *sigillata*.

Los Trancos (Bergonga): material zeramikoa: *sigillata*....

Oliván (Salcedo): material zeramikoa: *sigillata*....

Ronillas (Salcedo, Caicedo Yuso): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Santullana (Salcedo, Caicedo Yuso): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Turiso (Salcedo): material zeramikoa: beranduko *terra sigillata galikoa*.

Lantziego:

Asa (Lantziego): goi-inperioko kronologia erromatarreko material arkeologiko ugari aurkitu da, K.o.ko I. mendearen eta K.o.ko II. mendearen artean koka daitekeena: zeramika-zatiak, batez ere *terra sigillata hispanikoa*, mahaiko eta sukaldeko zeramika ohikoa, etab.; zurgintzako elementuak; brontzeko txanpon bat, etab. 2 erromatar inskripzio; *terra sigillata galikoa*; hilarri epigrafeduna; materail zeramikoa: *sigillata*, teila erromatarra...

Laudio/Llodio:

Vitorica (Laudio): zubia.

Legutio/Villareal de Alava:

San Migel (Urbina, Legutio): material zeramikoa: *sigillata*...

Leza:

Peña del Cuervo (Leza): material zeramikoa: *sigillata*.

Maeztu/Maestu: material zeramikoa: *sigillata*.

Atauri (Maeztu): txanpona.

Los Moros / Peña Rasgada (Maeztu): material zeramikoa; beranduko *sigillata*, etab.

Matauko/Matauku:

Ania (Matauku): *terra sigillata afrikarra*.

Mezkia:

San Juan (Mezkia): material zeramikoa, *terra sigillata hispanikoaren* hainbat zati, eta baita sukaldeko zeramika arrunta; goi-inperio garaikoa eta beranduagokoa.

Moreda Araba.

El Sorno (Moreda Araba): material zeramikoa: *sigillata*.

Perezuelas (Moreda Araba): izaera handiko nekazaritza kokagunea; eraikuntza hondarren presentzia; baita zeramikazko edukiontziak (dolia) ere: I-IV. mendeetakoak; era berean, *terra sigillata hispanikoa*, *terra sigillata afrikarra*....

Santa Eufemia (Moreda Araba): material zeramikoa: *sigillata*.

Santa Maria (Moreda Araba) material zeramikoa: *sigillata*.

Murua: txanpon erromatarra, K.a.ko azken urteetakoak.

Nanclares de la Oca/Langraiz Oka: estela zatia; aztarnategi erromatartua; beranduko aldiari (K.o.ko IV-VI. mendeen artean...) lortu zuen osorik garatzea.

Laren del Panadero (Langraiz Oka): material zeramikoa: *sigillata hispanikoa*.

Ollavarre (Langraiz Oka): hilarri inskripzioduna; 2 inskripzio erromatar.

Salaicesko San Pedro (Langraiz Oka): hilarri inskripzioduna.

Rubina (Langraiz Oka): III-V. mendeetako aztarnategia; pertsonen apainketarekin nahiz ehungintzarekin zerikusia duten objektuak, medikuntza-kirurgiako elementuak, etab...

Oion: kokagunea; buzingintza-artisautza jarduera-eremua; eraikuntzako hondarren presentzia; material zeramikoa: *terra sigillata hispanikoa*....

Okariz: sei estela; lau inskripzio erromatar; hilarria.

Okarizko San Migel (Okariz): San Migel baselizan erromatarren garaiko 30 hilarri zati, estelak, etab. aurkitu ziren.

Okondo:

Olabarrieta (Okondo): errotaren goiko pieza.

Orbiso:

Elano (Orbiso): Antonio Pio zenaren txanpon bat (140-143).

Peñacerrada/Urizaharra:

San Leonen Gaztelua (/Urizaharra): material zeramikoa: *sigillata*, etab.

Las Yurdinas Ilko baitzuloa (Urizaharra): material zeramikoa: *sigillata*; txanpona....

Payueta/Pagoeta (Urizaharra): inskripzioa duen oroitarria; Minerva jainkosari erreferentzia egiten zaio.

Ribera Alta/Erriberagoitia:

Carastako herrixka (Caicedo-Sopeña): zeramika alorrari dagokionean: *terra sigillata*, batez ere *hispanikoa*, oso interesgarria izanik Italian eginiko ontzi baten '*sigillum in planta pedis*' azpiko zatiaren aurkikuntza; ore dekantatuak eta egosketa herdoiltzaileak dituen mahaiko zeramika arrunta; sukaldeko zeramika; badira, baita ere, zeramikazko argiontzia, beirazko ontziak, brontzeko eta burdinazko elementu metalikoak. Goi-inperioan, K.o.ko I. mendean kokatzen diren produkzio-atalak dira. Tumulua: K.o.ko I.

mendeko goi-inperioko kronologia duten ehorzte-egiturak, erretzeko errituaren praktika duela. Aztarnategia: tokiko biztanleen herria eta nekropolia; goi-inperioko kronologia erromatarra duen herria eta ehorzte zelaia. Kastroa: II. mendean erromatar munduko ezarpenen eraginez jendeztatze berria garatu zen...

El Riberón-Ruines (Subijana-Morillas, Erriberagoitia): material zeramikoa: *sigillata hispanikoa*, apainik gabea eta apaindua; erromatar arrunta.

El Riberón (Castillo-Sopeña): nekazaritza-kokagunea. Hedadura handia goi-inperio garaian; *terra sigillata galikoa*.

Leciñana Oka (Erriberagoitia): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Paulejas (Bezanauri, Erriberagoitia): material zeramikoa: *sigillata hispanikoa*, apainik gabea eta apaindua; erromatar arrunta.

San Migel (Erriberagoitia): errota erromatarra.

Solacueva baitzuloa (Jokano, Erriberagoitia): tamaina txikiko 47 brontzeko pieza. Kobetako bizimodua; erromatarren beranduko okupazioa (IV-V); kokagune iraunkorra; zeramika, *sigillata* eran, Ipar Afrikako eta Galiako hegoaldeko *sigillata*; txanponen biltokia.

Kobairada baitzuloa (Subijana-Morillas): kobetako bizimodua; erromatarren beranduko garaiko okupazioa, IV-V. mendeetakoa; *terra sigillata afrikarra*.

Subijana-Morillas II (Erriberagoitia): material zeramikoa: *sigillata*; arrunta.

Puente Pinto (Barrón, Erriberagoitia) erromatar zubitzat jo daiteke.

Gobaederra / Hierbas Largas II (Subijana, Erriberagoitia): material zeramikoa: *sigillata*.

Iriñuela (Salcedo-Sopeña, Erriberagoitia): material zerami-
koa: *sigillata*.

Rodavalle (Erriberagoitia): material zerami-
koa: *sigillata*.

Socarral (Bezanauri, , Erriberagoitia): txanpon bat.

Yerada II (Yeradako koba, Erriberagoitia): material zerami-
koa: *sigillata*....

Ribera Baja/Erriberabeitia:

Igai (Erriberabeitia): 3 txanpon.

Quintanilla: (Erriberabeitia): miliarioa.

Ribabellosa (Erriberabeitia): hiru txanpon; Bideetako Lareei
(erromatar jainkosei) aipamen egiten dien bi inskripzio.

Ronillas (Igai ondoan, Erriberabeitia): *terra sigillata gali-*
koa; hiru txanpon....

San Pelaio (Igai ondoan, Erriberabeitia): inskripzioa desa-
gertua duen estela; sei txanpon; Bideetako Lareei (erroma-
tar jainkosei) aipamen egiten dien inskripzioa.

San Millán / Donemiliaga:

Albeurmendi-Askartza (Durruma/San Román de San
Millán): goi-inperio garaian ‘mansio’ honetako instalazioak
osatuko zituzten hainbat eraikin txiki osagarri egon zirela
eman da aditzera. Hondakindegietan material multzo nahi-
ko handia aurkitu da, kronologikoki K.o.ko I. mendeko er-
dialdearen eta II. mendearen artean kokatzen dela. Zerami-
ka moten multzoa nabarmentzen da, tradizioaren arabera
luxuzkotzat jotzen diren emaitzak, hots, ‘*Tritium Magalum*’
(Tricio) aldeko Majerillako tailerretako *terra sigillata hispa-*
nikoak. Erromatarren garaiko kokagunea; terma-eraikina
(I-II. mendeetakoa); ‘opus caementerium’, etab.; bi txan-

pon; *terra sigillata galikoa*; *terra sigillata afrikarra*; *terra sigillata hispanikoa*.

Eguilaz/Egilatz (Durruma): erromatarren bidearen zatiak; hilarri inskripzioduna; bi inskripzio erromatar...

Mezkia/Mezquia (Durruma): erromatarren bidearen zatia.

Nar baitza (Donemiliaga): material zeramikoa: *sigillata*; hilarri inskripzioduna.

Okariz (Donemiliaga): hilarria.

Ordoñana / Erdoñana (Donemiliaga): III-IV. mendeetako objektuak.

San Migel (Donemiliaga): hilarri inskripzioduna; estela zatia; hainbat estela eta hilarri.

Durrumal/San Román de San Millán (Donemiliaga): erromatar bidearen zatiak; inskripziodun oroitarria izan zitekeen baten bost zati. Inskripziodun hilarrien zatiak; estela apaindu baten zatia; material zeramikoa: *sigillata hispanikoa*; txanponak etab.; 10 inskripzio; 28 estela...

Galarreta mendia (Donemiliaga): inskripziorik gabeko aldea.

Santikurutze Kanpezu / Santa Cruz de Campezo: inskripzio erromatarra.

Gipuzkoako gure lankideon ekarpenak kontuan izanik, eta eurei esker ona agertuz, hemen nozue liburuon itzulpenaren eta argitalpenaren historiaren laburpena adierazteko prest. Zuatoriko askok ondo dakizuenez, itzulpen- eta argitalpen-lana talde-lana izan da, gero hobeto azalduko dodan lez. Jarraian, ba, Mezako Irakurgaien itzulpen eta argitalpenaren in-

guruko xehetasun garrantzitsuenak azaltzeari ekingo deusat, ahal dodanik eta zehatzen.

1. “Mezako irakurgaiak” liburuaren/liburuaren argitalpen barria

“*Mezako Irakurgaiak*” liburuaren argitalpen barria dinogu, baina itzulpena bera be barria da. Nondik sortu zan Mezako Irakurgaien itzulpen barria egiteko asmoa? Izan be, bageun-kan testu horren itzulpena, beharrezko diran baimen ofiziala-kaz, Donostian 1978an argitaratua (eta Bilbon 1988an). Horixe da orain arte darabilgun liburu lodikote mardula. Baina argi autortu behar da zahartua egoala/dagoala. Kanpotik eta aza-lez, bere loditasun eta pisuagaitik nahiko hondatuta egoalako, eta barrutik, eduki aldetik, baeukan barrizatu beharra, itzul-pena prisaren prisaz egin izan zalako. Hatan be, agiriko mu-gak zituan, eta argi ikusten zan hainbat puntutan hobetu eite-keala. Eta euskeraren aldetik be aurrera pausu handi eta ezin-bestezkoa egin beharra geunkan, hango itzulpena herri-hizkuntzaren eta euskara batuaren arteko erdibidean gel-ditu zalako.

Aitatu dodan zerrenda hori benetakoa izan arren, beste bat izan zan itzulpena erabarrizera bultzatu ginduzan arrazoia. “Eskuko Meza Liburua”ren preminea egoan eta egiten eus-kuen eskariari erantzun beharra geunkan. Joan dan gizaldia-ren azkeneko hamarkadan, 1994an zehatz esanda, *Elizen arte-ko Biblia* (EaB) argitaratu zan. Eta lan luze, sakon eta bikain haretan parte hartu eben taldekide batzuek “Eskuko Meza Li-burua” prestatzeko proposamena egin eben. Bibliaren itzulpe-nean egindako aurrerakuntzak herriaganaino zabaltzea gura eben eta prest egozan lanerako. Horixe izan zan egiaz itzul-pen erabarritu honetan sartzera bultzatu ginduzana.

Meza Liburuaren eta *Irakurgaiak* liburuaren eredu-zko ar-gitalpenak Mezearen ospakizunean ofizialki erabiltzeko egiten diranak dira. Beraz, liburu ofizial horreek egin behar ziran

lehenengo. Aukera desbardinak egozan argitalpen barri hone-
tarako testuari egokionez. Lehenengo aukera: aurreko *Meza
Liburuko* eta *Irakurgaiak* liburuko itzulpena euskara batuko
arauak zainduz idatzi eta argitaratzea. Bigarren aukera: *Elizen
arteko Bibliako* testua bere horretan erabiltzea. Batak zein
besteak asko erraztuko eukeen lana, egin beharreko lana
eginkizun mekaniko hutsa izango zalako. Baina bai batak zein



besteak baeukezan kontrako arrazoiak. Lehen esan dogu, *Ira-kurgaiak* liburuko itzulpenak baeukazala bere mugak prisaren prisaz egina izan zalako, eta hainbat puntutan hobetu eitekeala ikusten genduala. *Elizen arteko Bibliako* itzulpena, barriz, goi-mailakoa edo jantzia dala esango geunke. Ez genduan, ostera, egokituz jotzen herriagazko ospakizunetan erabiltzeko. Izan be, gauza bat da norberak liburua eskuetan daukala, behin eta barriro irakurri ahal izanez, oineko oharrakaz testua argituz, etb., irakurtzea, eta besterik da eleizan, entzun hutsez eta hala moduz entzunez gainera, jaso eta nork bereganatzea Hitzaren mezua.

Itzulpen erabarritua egitea izan zan azken erabagia. “Erabarritua” dinot, ze ez da ordura arte ezelako itzulpenik egin izan ez balitz lez hutsetik hasi eta barriren barri egitea. Hauxe izan zan erabagia: lehen aitatu dodazan itzulpen bietaz baliatuz, *Ira-kurgaiak 1978/88* eta *Elizen arteko Biblia*, testu barria egitea.

Gauzak holan zirala, Vatikanoko liturgiaren ardura dauan Kongregazioak *Liturgiam authenticam* Irakaspena argitaratu eban 2001. urtean. Irakaspen honetan esaten da Vatikanoko II. Kontzilioaren aginduz egindako lehenengo itzulpenak berrikusi eta aztertu egin behar dirala, eta arreta berezia jartzea eskatzen dau itzulpenak zehatz eginak izan daitezcan. Izan be, lehenengo itzulpen hareek “*ad interim*” edo “*ad experimentum*” izan ziran baimenduak. Baina liturgi liburuetan erabili beharreko testuek jatorrizkoaren egiazko itzulpen zehatzak izan behar dabe. Eleizaren fedea adierazten da bai irakurgaie-tan bai liturgi ospakizunetako otoitzetan. Fedearen egiazkotatuna eta batasuna dago hor jokoan. Horregaitik, leialtasuna eskatzen da. Baina alderdi bi ditu fideltasunaren eskari honek: egia da testuari zor jakola leialtasuna, baina leialtasuna zor jakoa entzun behar dauan jasotzaileari eta herriari be. Esan nahi da, itzulpenak fidela izan behar dauala, bai, testuagazko, baina, aldi berean, herrikoia eta ulertteraza izan behar dauala, partaidetza ahalbidetzeko.

2. “Meza Liburua”ren eta “Mezako Irakurgaiak” liburuen bizkaierara egin doguzan itzulpenen historia laburra (Vatikanoko II. Kontzilio ostekoa)

Lehenengo takada/sasoia

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren Liturgia Santurako Konstituzinoa (S.C.) izenpetu zanerako (1963-12-4ean) guk Bizkaian bageunkan Mezea euskeraz esateko/ospatzeko aukera. Izan be, urte horretan argitaratu zan “Eguneroko Meza”. Jaime Kerexeta Elorrioko abadeak eta Santiago Onaindia (aita Santi) Amorotoko erlijioso karmeldarrak prestatu eben eskuko Meza Liburua. Bizkaiera berba egiten genduan, eta euskeran alfabetatuta ez gengoan eleiztarrantzat bizkaiera eder eta ulergarrian eskeini euskuen euren lanaren frutua.

Takada horren ostean, beste takada bi izan genduzan, Kontzilio ostekoak. Hemendik aurrera egingo diran itzulpen eta argitalpenak eleizbarruti arteko taldean egindako lanaren frutu izango dira, liturgian eta euskeran adituak ziranez prestatuak.

Bigarren takada/sasoia

(Paulo VI.a Aita Santuaren Meza Liburua -1969- eta MISSALE ROMANUM 1970 -lehen edizinoa- plazaratu ostean).

Une edo mugari batzuk:

1971: “Mezaren Egunerokoa”. Gipuzkeraz eta Bizkaieraz.

1970-1972: Domeketako Irakurgai Liburuak:

1. “C” Zikloko Irakurgaiak. “Foiletoetan”. (Ik. Garizumaldia)
2. “A” Zikloko Irakurgai-Liburua I.
3. “B” Zikloko Irakurgai-Liburua II.

Sasoi honetako euskeratzaile-bizkaieratzaileak: Lino Akeso-lo, Karmelo Etxenagusia eta Pio Zarrabe, pasiotarra). Besteren bat partaide (?).



[1078: IRAKURGAIAK, gipuzkeraz. Bizkor ibili ziran euskeratzen, Orixeren Meza Liburua eta Olabideren Biblia ez zirala-ko herriaren aurrean aldarrikatzeko egokiak].

1976: Euskal Biblia (Kerexeta). Argitalpen bi izan ditu eta beste bat formato txikian. Herriak ulertzeko moduko bizkaieraz. Neuk idatzi nebazan, Jaimek eskatuta, Biblia osoko liburu guztien sarrerak.

1984: Meza Liburua. Bizkaieraz eta gipuzkeraz batera argitaratua.

1988: IRAKURGAIK, bizkaieraz. Urte guztirakoak. Gu astiroago ibili ginan, beste arrazoi batzuren artean bageunkazalako Kerexetaren “Eguneroko Meza” eta “Euskal Biblia”.

Sasoi honetan euskeratzaile/bizkaieratzaile: Pedro Puxana, Juan Gallastegi, Jesus Garitaonandia, Jose Felix Zamakona, Juanjo Lejarazu eta Lontzo Zugazaga.

Argitalpenaren arduradun: Karmelo Etxenagusia, eta Lontzo Zugazaga (testua) eta Jose Mari Rementeria (argitalpena).

[1994: Elizen arteko Biblia.

Itzultzaileak: Dionisio Amundarain (Koordinatzailea), Jose Luis Aperribai. Jose Arregi, Jesus Mari Arrieta, Ramon Irizar (biblista), Iñaki Mendiguren, Juan Mari Olaizola (“pastor”), Kasimiro Perez (biblista), Jose Mari Rementeria eta Lontzo Zugazaga].

Itzulpen hau hemen sartzten dot, nahiz eta itzulpena euskara batura egina izan. Izan be, garrantzi handia izango dau itzulpen honek hirugarren takada/sasoirako. Hatan be, hirugarren takada/sasoiko itzulpenaren oinarrian izango dira itzulpen hau eta Liturgiarako egina geunkan itzulpena (1978/1988).

Hirugarren takada/sasoia

Orain eskuetan daukagun itzulpen honek osotzen dau hirugarren sasoia.

MEZA LIBURUA: Euskara Batuan (2019) eta Bizkaieraz (2020).

MEZAKO IRAKURGAIK: Euskara Batuan (2020) eta Bizkaieraz (2021).

Hirugarren etapa honetako itzultzaileak:

Euskara batura: Eustasio Etxezarreta Testu Liturgikoak euskeratzeko Eleizbarruti arteko Koordinatzailea, Ramon Irizar, Dionisio Amundarain, Jesus Mari Arrieta, Jose Mari Rementeria eta Lontzo Zugazaga.

Bizkaierara: Juan Gallastegi eta Lontzo Zugazaga.

Meza Liburuaren eta Mezako Irakurgaiak liburuen itzulpenok kontuan izanik, interesgarria da azken urteotan argitaraturiko beste lan batzuk be ezagutzea. Bizkaieraz eta Euskaltzaindiaren idatz-arauak aintzat hartuz argitaratu doguz:

2015: Jesu Kristoren Ebanjelioa

2018: Testamentu Barria.

Euskeratzaile: Juan Luis Goikoetxea Arrieta eta Lontzo Zugazaga Martikorena.

Horrezaz gain, “Euskal Baliabideak” deritxon Taldeak Eleizbarrutirako ezinbestezko zan liburua argitaratu eban:

2015: “Domekaren Ospakizuna” (Domekaren Ospakizuna Abaderik Ez Danean= DOAED). Gaztelaniazko ADAP (Asamblea Dominical en Ausencia de Presbítero) gure eleizbarrutian nahiko zabaldua egoala kontuan izanik, prestatu genduan zerbitzu hori.

3. Itzulpen-talde barria eta lan-prozedura

Lehen esan dogu, *Elizen arteko Bibliaren* itzulpen-lanetan jardundako kide batzuk eskeini zirala eskuko Meza Liburuaren proiektua aurrera eroateko. Horretarako sei laguneko taldea sortu zan: **Ramon Irizar**, frantziskotarra, Biblian aditua (+ 2011), **Dionisio Amundarain**, beneditarra, EaBko itzulpen-lanetan koordinatzaile izana, **Jesus Mari Arrieta** (Tolosako parrokoa), **Jose Maria Rementeria** (Ondarroako parrokoa), **Lontzo Zugazaga** (Bilbo eleizbarrutiko Katekesirako Gotzain Ordezkarria eta Getxoko Andra Mariko parrokoa), –guztiak EaBko itzultzaile taldekoak–,

eta **Eustasio Etxezarreta** (liturgi testuen itzulpenetarako eleizbarutiarteko koordinatzailea). Talde honek jardun dau, hasi eta amaitu arte, liturgiako testuen itzulpen-lan hau egiten. Gero, liburukien maketazioa, inprimatzea eta enkoadernatzea egin behar izan danean, Unai Manterola, Donostia eleizbarrutiko liturgiaren arloko gotzain-bikarioa, izan da, batez be, lan horreen ardura leporatu dauana.

Taldeak 1999ko zezeilean ekin eutson lanari. Biblia arloan aditua zan Ramon Irizarrek testuaren jatorrizko hizkuntzako edizino kritikoak izan ebazan esku artean: Itun Zaharreko testuetarako hebreerazko *Biblia hebraica Stuttgartensia eta Septuaginta*-ko grekozko bertsinoa. Itun Barriko testuetarako, barriz, *The Greek New Testament*-aren grekozko edizino kritikoa. Eta testua liturgian erabili ahal izateko, euskerazko bertsino honetan interpretazioari eta egokitzeari dagokionez, *Nova Vulgata* deritxona. Irakurgai bakoitzaren xehetasun eta berezitasunak batzen dituan *Ordo Lectionum Missae* deritxona, Mezako irakurgaien aipamen edo zitak dakarzan liburu ofiziala. Gure orain arteko *Irakurgaiak* liburua, lehengo itzulpena kontuan izateko. Eta *Elizen arteko Biblia*, pasarte bakoitzaren itzulpen barria be kontuan izateko.

Talde-lanaren prozedurari dagokionez, biblialariak prestatzen eban, taldeko kide bategaz batera, testuaren lehenengo itzulpen-proposamena. Gainerako taldekideok etxeko lanak eginez, testu hori irakurri eta aztertu egiten genduan, bakoitzak bere zuzenketak aurkeztuz, eta danon artean adosten genduan azken testua. Irakurgai-pasarteen zerrenda edo bilduma guztia itzultzea izan zan lehenengo egindako lana, hiru milatik gora orrialdetako testu-moltsoa, eta ondoren *Meza Liburu* osoari errepassoa emotea, beste mila eta hirurehun orrialdetik gorakoa. Gehienetan hilean behin egiten genduan taldebatzarra, bost edo sei ordukoa, Donostiako Gentzan.

Oinarrizko lan hau amaitutzat emona gelditu zan 2009ko zemendian. Gero egin beharreko lana, *Meza Liburua* dago-kion ordenean antolatzea izan zan: egun bakoetako formula-rioa osotzea: tituluia, egunaren data, antifonak, otoitzak, Meza-ren Egunerokoa, Santuen Berezia, etb. Eta gauza bera Biblia-ko pasarteekin: egun bakoetako formularioa moldatzea bere titulu, irakurgai, bibli aipamen edo zitarekin, erantzun-salmo eta aleluia-txatalekin.

Baina lehenago urte guztiko Mezako irakurgaiak liburu handi eta lodi bakarrean bageunkazan, orain ez egoan hori egiterik, besteak beste, letra handiangoan emon behar ziralako testuak. Eta, zelan banatu gai-moltso hori guztia? Hasiera ba-ten, hiru liburukitan egitea pentsatu zan, latinezko argitalpe-nean egoan lez; baina, latinezko argitalpen ha be letra txikian eginda egoan, eta guretzat ez zan posible gai hori guztia hiru liburukitan emotea, letra handiangoa behar gendualako irakur-terrazta izan eiten. Azkenean bost liburukitan egitea erabagi zan, ospakizunen eta testuen banaketa koherentea eta oreka-tua eginenez eta domeka eta astegun alkarren segidan emonez:

I.- ALDIKO BEREZIA: ABENDUALDITIK PENTEKOSTERA

II. - ALDIKO BEREZIA: URTEAN ZEHAR I

III.- ALDIKO BEREZIA: URTEAN ZEHAR II

IV.- SANTUEN BEREZIA, BETIKOAK, HILEN ALDEKOAK
ETA DEBOZINOZKOAK

V.- SAKRAMENTU ETA OHIKUNE MEZAK ETA BEHARRI-
ZAN BATZUTAKOAK

Horrez gainera, Aste Santurako lagungarria eskeintzea pen-tsatu zan. Eta “separata” modura, seigarren liburutxu bat argi-taratu da, ale bi, bata “Kronistarentzat” eta bestea “Sinagoga-
rentzat”:

ASTE SANTURAKO LAGUNGARRIA: ERRAMU DOMEKA-
BARIKU SANTUA

Meza Liburuko eta *Irakurgaiak* liburukietako testu hori guztia garbian eta behar dan moduan formularioetan antolatua taldekideei bialdu jaken barriro, azken begiratu bat emon egioen. Horretara, euskerazko oinarritzko bertsino nagusia, erreferentea, esan geinkean hau, hiru argitalpenetan emongo da (orain arteko jokabidea kontuan izanik): bata euskara batuan egina, bestea bizkaierazkoa eta hirugarrena lapurteraz egina. Eleiztarren euskeraren ezagutza eta alfabetatze-maila oraindino urria dan ezkeru, beharrezkotzat jotzen dogu era horretan jokatzea. Ez gagoz ezelan be euskara batuaren kontra, baina oraingoz holan jokatu beharra ikusten dogu, jasotzaileek mezua ulertu eta eurenganatu ahal izan dagien.

4. Erantzun-salmoak eta Aleluiak kantu-liburua

Irakurgaiak liburuaren berezitasun bat erantzun-salmoarena eta aleluia-txatalena da. Ahal izanik, zati honeek kantatu egitea da egokiena. Hona zer dinoan *Erromako Meza Liburuaren Eraketa Orokorrean*: “Erantzun-salmoa abestea da egokiena, gitxienez herriak emon beharreko erantzuna abestea...; herriak errazago esku hartu dagian, errepika eta salmo batzuk aukeratu dira” (61. zk.; ik. “Erantzun-salmo betikoak abestu nahi danerako”, *Irakurgaiak*, I. lib., 611-613. or.; *ibid.*, II. lib., 527-528. or.; *ibid.*, III. Lib., 537-538. or.).

Domeka eta jaiegun berezietarako erantzun-salmo eta aleluetarako doinuak egiten ibili da musika-gaietan adituak diran kideez osotutako beste talde bat, eleizbarrutiartekoa hau ere: Jose Iturria (organista), Juan Jose Arregi (Hernaniko abade laguntzailea), Antonio Linaza (Zornotzako parrokoa), Aita Xabier Irastorza (beneditarra), eta Eustasio Etxezarreta (taldearen koordinatzailea). Urteetan egindako lanaren emoitza da *Erantzun-salmoak eta Aleluiak* kantu-liburua. Argitaratua izan da jada, 2021eko martian.

5. “Irakurgaiak” testuaren onspena

Vatikanoko II. Kontzilioak argitaratutako Liturgia sakratuari buruzko *Sacrosanctum Concilium* Konstituzinoan esanda dago, “Eleizaren aginteari dagokiola soil-soilik herri-hizkuntzetera egindako liturgi liburuen onspena” (ik. 22. zk.). Arau hori bera jasotzen da gero *Zuzenbide Kanonikoaren Kodean* (838. Kan.) eta *Liturgiam authenticam* Irakaspenean (79-84. zk.). Lehenago aitatu dogun lez, Eleizaren fedearen egiazkotasuna eta batasuna dago hor jokoan.

5.1. Herri-hizkuntzaren erabilpena liturgian

Eleizaren historian latinetik herri-hizkuntzarako pausua emoteko planteamentua egin izan dan bakotxean, eta aspalditik egin izan dan proposamena da hori, ezezkoa izan da hartu izan dan erabagia. Aldaketa horrek izan leikezan alderdi onak ukatu barik, kezka handia sortu izan da, Eleizaren fedearen sakabanatzea ekarriko leukeala argudiatuz. Besteak beste, misino-herrietatik egindako eskaria izan da hori batez be. Eleiz bizitzan eta berariaz liturgian III. gizalditik hasita Vatikanoko II. Kontziliora bitartean erabili izan da latina.

Historiako aipamen batzuk egitearren, Alemaniako Frankforten 790. urtean egindako kontzilio baten aurkeztu zan gai hau, baina ez eban bide horretan aurrera egiterik lortu. Deigarria izan zan baita Zirilo eta Metodios santuen jokabidea be. IX. gizaldian, Greziatik eslabiar herrialdeetara misiolari joanak ziran, eta eslabierako alfabetoa sortu eta Bibliaren eta liturgia liburuen itzulpenak egin ebezan eta ospakizunetan erabili. Jokabide horrek arazo astunak leporatu eutsiezan Eleizaren barruan. San Pio X.a aita santuak, liturgian erabili beharreko musika sakratuaz egindako idazkian (*Tra le sollecitudini*, 1903) hauxe inoan: “Latina da erromatar Eleizaren hizkuntza berezia”. Beraren asmoa, batetik, musika sakratuaren duintasuna berreskuratzea eta edertzea zan, eta, bestetik, musika

hori neurri baten behintzat herrikoiago egitea, kantuaren bidez liturgi ospakizunetan parte hartu ahal izateko. Hatan be, aita santu berberak esana da, “liturgia dala egiazko kristau-espirtuaren lehenengo eta ezinbesteko iturria”. Esaldi horretatik era bitako ondorioak sortzen dira: Eleizaren fedearen batasuna zaindu beharra, liturgiaren frutu dalako kristau-espirtu hori; baina baita liturgia kristau-herriaren esku-erara jarri beharra be. Dana dala, liturgian herri-hizkuntza erabiltzeko bide hori heldu barik egoan oraindino.

Pio XII.a aita santuak inoan, batetik, “Batasunaren ikurra eta jatorrizko doktrina ez okerbideratzeko babes eraginkorra da latina” (*Mediator Dei*, 1947). Halan be, adierazpen honek ez dau esaten latina batasunaren sorburu edota egilea danik. Beste hau da batasunaren benetako oinarria: “Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua...; bat bakarra Jauna, bat bakarra sinismena, bat bakarra Bateoa, bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita” (Ef 4,4-6). Baina beste alde batetik aita santuak dino: “Halan be, ohikune edo erritu batzutan herri-hizkuntza erabiltzea oso onuragarria izan daiteke fededunentzat” (ibid.). Aita santu berberak hartu eban, hain zuzen, domeketako irakurgaiak, latinez irakurri ostean, herri-hizkuntzan errepi-katzeko erabagia (1951). Eta berari zor deusagu Aste Santua herri-hizkuntzan ospatu ahal izatea ere (1955).

Vatikanoko II. Kontzilioan aurkeztu zan gai hau era ofizialean aztertzeko. Eztabaida sutua izan ei zan, latinari eustearen aldeko gotzainen eta liturgian herri-hizkuntza sartzearen aldekoen artean. Lehenengoan ustez, latina izan da Eleizaren hizkuntza tradizinoz, hizkuntza sakratutzat jotzen eben eurek, latinak bermatzen ei eban Eleizaren batasuna, katolikotasunaren ikurra ei zan, Eleizaren fedea eta doktrina okerbideratzeko arriskua ei egoan latina laga ezker... Herri-hizkuntzak erabiltzearen aldekoek, barriz, Eleizaren apostolutzari eta alderdi pastoralari begiratzen eutsoen. Ezin esan daiteke latinaren kontrakoak ziranik. Autortzen ebezan Eleizaren fedearen

eta doktrinaren oinarrizko idazkiak latinez egoteak dituan alderdi onak, baina, aldi berean, liturgian herri-hizkuntza erabiltzearen alderdi onak eta onurak azpimarratzen ebezan. Izan be, latina ez da beti Eleizaren hizkuntza ofiziala izan (I-IV gizaldietan), eta ez da leku guztietan be halan izan; grekoa, eslabiera, kroaziera, koptoa, siriakoa... liturgian erabili izan diran eta erabiltzen jarraitzen daben hizkuntzak dira. Eta ondino makalagoa da latinaren aldekoen argudio hori Eleiza eta liturgia gaur egun mundu guztian zabaldua dagozanean. Ekumenismoak ere indartu egiten dau herri-hizkuntzak liturgian sartzearen aukerea; eta batez be, ikuspegi pastoraletik begiraturik, zelan emon garrantzia Jainkoaren Hitza entzuteari, ulertzen ez bada? Zelan lortu fededunek liturgi ospakizunak aktiboki, oharturik eta era onuragarrian parte hartzea? Biblia-ko irudiez baliatuz esan daiteke, latinaren aldekoek Babel barri baten mamua ikusten ebela; herri-hizkuntzaren aldekoek, ostera, Pentekoste barri baten itxaropena.

Kontzilioaren erabagia, azkenean, liturgian herri-hizkuntzak erabiltzearen aldekoa izan zan, nahiz eta lehenengo urteetan emondako pausuk bildurti samarrak izan. Baina Eleizak ez dau galdu fede-batasunari buruzko ardura eta kezka. Horregaitik, ikuspegi horretatik ulertu behar da gorago aitatu dogun “Eleizaren aginteari dagokiola soil-soilik herri-hizkuntzetara egindako liturgi liburuak onestea”. Bakarra da kristau egia. Hori galdu edo hondatzeak Eleizaren, hau da, kristau-alkartearen hondamena izango leuke ondorio.

5.2. Liturgi testuen itzulpenaren onespena

Prest geunkazan guk 2012ko uztailean, batetik *Meza Liburua* eta bestetik *Irakurgaiak* bost liburukitan. Baina testuaren onespeneri dagokionean, anomalia edo arazo bat sortzen zan; izan be, zelan emon leikio oneritxia Espainiako Gotzainen heren bik, ia danentzat ezezaguna dan euskaran idatzita dagoan testuari? Azken baten, euskal Eleizbarrutietako Gotzainen ere-

txian eta eurengan daben konfiantzan oinarriturik emoten dabe hareek baietza, zelan osterantzean? Horretarako, ostera, gure Gotzainek itzulpeneko ibilbidean ezelako parte hartze zuzenkorik izan ez ebenez, aditua zan norbaiti eskatu eutsoen eretxi-txostena. Eta, ostean, hainbat zuzenketa-proposamen egiten eban txostena bialdu euskuen itzulpen-taldeari.

Ohar-proposamenak aztertu, eskatutako zuzenketak egin edota inoiz azalpenak eskeini eta hori guztia kontuan izanik barriro testu osoari errepassoa emon ostean, Espainiako Gotzainen Batzarrak 2014ko zemendian egindako batzarraldian onartu eban *Meza Liburua*. Eta *Mezako Irakurgaien* testua 2015eko zemendian egindako Batzarraldian onartu eban Espainiako Gotzainen Batzarrak, eta 2016ko urtarrilean eroan eben Erromara. Handik deia harturik, Felix Alonso, Bilboko Bikario Nagusia, eta Eustasio Etxezarreta Erroman izan ziran 2016ko zezeilean eta 2017ko uztailen. Kongregazinoko arduradunekin hiru eguneko lanaldi bi egin ebezan, *Meza Liburuaren* azterketa egiteko, lehenengo, eta *Mezako Irakurgaien* azterketa gero. 2017ko urrian jaso eben euskal Eleizbarrutietako Gotzainek *Meza Liburuaren* Vatikanoko Kongregazinoaren onespren-dekretua. *Mezako Irakurgaien* testuaren inguruan, ostera, hainbat zuzenketa egitea eskatu euskuen Erromatik 2017ko abenduan, beti be azaleko eta garrantzi gitxiko iku-tuak. Eta eskatu euskuezan zuzenketak azterturik, 2018ko apirilean bialdu genduan *Mezako Irakurgaien* testu osoa zuzenduta. 2020ko urtarrilean jaso eben gure Gotzainek *Mezako Irakurgaien* onespren-dekretua.

6. Argitalpen barria egitea

6.1. Bost liburukiak maketatzea

Onesprenaren Dekretua jaso eta behingoan ekin geuntsan guk argitalpenerako prestaerak egiteari. Mezako Irakurgaien

testu osoa etenbako lanaldi jarraitu baten egin zan lez, bost liburukien maketatzea, enkoadernatzea eta argitaratzea be ekitaldi baten egitea erabagi zan. Espainiako Gotzainek Madrilen daben Eleizaren etxean bada liturgi liburuen argitalpen-lanetan espezializatua dagoan taldea. Gure lehenengo asmoa, Gotzainen Batzarraren Madrilgo egoitzako argitalpen-saileko talde horren eskutik egitea izan zan; eurek ofizio ona ebelako, liturgiako liburuen nondik norakoak ezagutzen dabezalako, esperientzia dabelako.... Baina aproba batzuk eskatu geuntsezanean konturatu ginan, lanez gainezka egozala eta gure lana alde batera gelditzen zala, euren lanei lehentasuna emonez. Orduan, hemen berton, etxetik gertura egitea pentsatu genduan. Lasarte-Oriako “Antza” deritxon inprimategiarekin bazituen hartu-emoiak gure taldeko batzuek. Hor ibiliak izan dira Donostiako Gotzaindegiko lan batzuk egiten. Holan, “Antza” koakaz alkarrizketan jarri ginan 2020ko urtarrilaren amaieran, eta joan dan martian (2020) hasi ginan lanean. Nahiz eta pandemiak bete-beteen harrapatu ginduzan, lanean jarraitu genduan etxetik, eta ekainaren azkenerako oso aurreratua geunkan *Irakurgaiak* bost liburukien maketazinoa. Eta udako oporrak eta guzti, irailaren azkenean amaituta geunkan maketazino osoa.

6.2. Argitaratze-lanen azalpena

Inprimatzea zan hurrengo pausua. Aurreko urtean, *Meza Liburua* egin genduan, fotokonposizino-maketazinoa, kasu haretan be, hemen, Euskal Herriko “Tecnigraf” enpresan egin genduan; baina inprimatu eta enkoadernatzea Madrilko taldearen bidez egin zan, eta ondo urten eban esperientzia harek. Oraingoan be gauza bera egitea erabagi genduan. Egia da Lasarte-Oriako inprimategian gai zizala inprimatze-lana egiteko, baina papera eskuratzea, plegatzea eta enkoadernatzea ez egoan hemen ondo egiterik, batez be, nahi dan papera lortzeari eta enkoadernatzeari dagokienaz. Izan be, ale gitxi enkoadernatu beharreko lana danean, askotan bazterrera geldi-

tzen dalakoaren esperientzia dogulako. Ez da bardin, 10.000 edo 15.000 ale enkoaderatzeko izatea, edo 600 edo 800 ale izatea. Eta paperari dagokionean be ale-kopuru handia danean eskatu daitekio paper-fabrikari, ezaugarri berezi eta jakinak dituan papera egiteko. Eta horretan, Madrilgo taldeak indar handiagoa dauka, esku arteko lana aurrera ataratzeko. Horretara, Madrilgoek erabili ohi daberen inprimategi- eta enkoaderatzeko-enpresetara jo genduan. Eta hauxe dozue azken emoitza.

6.3. Lan osoaren ikuspegia

Hasieratik, eten barik, lehenengo, *Irakurgaiak* testuaren itzulpena bere osoan egitea erabagi zan, eta segidan *Meza Liburuaren* itzulpena. Guztira 4.000tik gora orrialde izan dira. Horrek lana luzatu egin dau eta astundu, bai itzulpen-lanari dagokionean, bai lan hori guztia garbian jarri, formularioz formulario liburuak eratu eta ordenatu, barrero irakurri eta zuzentzeari dagokionean..., baita konposizino- eta maketazino-lanari dagokionean be, ze barrero guztia irakurri, zuzendu, etb., egin beharra egoan. Horrez gainera, liturgi testuek beharrezko daberen onespene bikotxak (Madrilekoa eta Erromakoa) luzatu eta atzeratu egin dau argitalpena. Izan doguzan alderdi neketsu eta ezkorrak horreexek izan doguzala autortu beharko neuke.

Baina, horretara egin izanak, baditu bere alderdi on eta argitsuak be. Bibliako liburuek, bakotxa besteakandik desbardi-na izanda be, badabez, ostera, gaiaren aldeko loturak, hiztegiaren jarraipena, testuen errepikapenak, etb. Testuaren kopuru osoa dana segidan egin izanak, zeozelan esateko beroan egin izanak, guztiari barru-batasuna emotea erraztu dau. Eta zuzenketak egin behar izan diranean be, bildumako pasarte guztietan egin ahal izan dira. Alde horretatik, emoitza ona izan dala pentsatzen dogu.

Testuaren Erromako onespenerari buruz, argi ikusi dogu orain begirada askoz zorrotzagoa darabilela liturgi liburuen itzulpenak ontzat emotekoan, Kontzilio osteko lehenengo itzulpen hareetan baino. Orduan lan asko eta denpora gitxi egoan itzulpenak prestatzeko; hizkuntza guztietako itzulpenen arazoa zan ordukoa. Eta “*ad interim*” eta “*ad experimentum*”, hau da, aldi baterako edo behin-behineko onespenera emon eben, testuaren azterketa sakonik egin barik. Baina liturgia herri-hizkuntzan egin ahal izateko planteamentua Kontzilioan egin zanean, baiezko erabagiagaz batera, itzulpenen zehaztasunaren kezka be garbia zan. Izan be, barrero esanda, liturgi liburuetan Eleizaren fedea adierazten da. Horregaitik, ardura berezia dau Eleizak, fedearen doktrinari dagokionean zehatzak izan daitezcan itzulpenak.

Egia da, Kongregazinoko arduradunek, hizkuntzari dagokionean ezjakinak izanik, testuaren egiturari eta konposaketaren egokitasunari baino gehiago begiratu deusiela liburukien beste xehetasun batzuei. Azken baten, ikusi ahal izan eben itzulpenak baeukala fidagarritasuna. Gainera, gure Gotzainek eta Espainiako Gotzainen Batzarrak euren oneritxia emonda baeuken, onartu eben eurek be emon eikiela.

6.4. Lan osoaren balorazioa

Ekintza handi honi bultzada emon eutsone Eskuko *Meza Liburua* izan zan. Horretarako, ezinbestekoa zan *Meza Liburua* eta *Mezako Irakurgaien* liburu nagusiak edo ofizialak egitea. Nekez eta urte askoren buruan hori egitea lortu danean, hor jarraitzen dau harako Eskuko Meza Liburuaren eskariak. Eskura ditugu orain asmo hori egintzara erroteko behar diran osagaiak. Halan be, ez dot esango hori ezinezkoa danik, baina arazo bi azaltzen jakuz: alde batetik, badala lehentasuna dauan beste eginkizunik: esaterako sakramentuak ospatzeko ohikuneliburuak argitaratzea: Bateokoa, Sendotzakoa, Penitentziakoa, Gaixoen Oliadurakoa, Ordena sakratuetakoa, Ezkontzakoa, Hi-

letetakoa...; eta bestetik, Gotzaindegiko/Gotzaindegietako Ekonomia Sailak/Sailek “mezenas” on bat aurkitu beharra ikusten dabela, ekintza horri erantzun ahal izateko.

Amaitzeko, eta esku artean dogun obra handi honen balorazi-noari dagokionez, hemen azaldu dogun *Mezako Irakurgai*en bost liburukien ibilbidea kontuan izanik, hau da, itzulpen-lanetan emondako 11 urteak, bidaiak..., eta gerora egindako zuzenketa-saioak, maketate-, enkoadernatze- eta argitaratze-lanak eta azken emoitza ikusirik, egileon eretxia argi eta garbi ona da.

Oraindik aurrera, zeuona da berbea, erabiltzaileona.

Eta, zein izan da bizkaierazko bertsinoaren ibilbidea?

Orain arte esandakoa euskara batuan egin dogun itzulpenari dagokiona izan dogu. Baina hemen aurrean dogu beste bilduma oso hau be. Eta hau bizkaieraz dago. Eta, zein izan da, batuaz egina, erreferentea aintzat hartuz, bizkaierazko bertsinoaren ibilbidea?

Hara! Atzera joko dot itaun horrerri erantzuteko. 1990.eko hamarkada oso balio handikoa izan zan Bilboko gure eleizbarrutian, euskerari dagokionean. Hamarkada horretan sortu zan, 1992an, “Euskal Baliabideak” deritxon lan-taldea. Eta 1994ko urtean onartu eban gure gotzaindegiak itzultzaile ofiziala, laikoa eta emakumea, Miren Leanizbarrutia, eta onarpen eta izendapen horrek eragin aberatsa, benetan baliotsua izango eban gotzaindegian bertan eta eleizbarrutiko ordezkartza eta zerbitzu guztietan.

Ba, aitatu dodan Euskal Baliabideak taldeak baliabide ugari prestatu izan ditu, lan isil eta eraginkorreetan, batez be 2002. etik 2021. honetara bitartean, gure elizbarrutiko euskal esparruaren mesederako eta onura handirako.

Talde horixe arduratu zan 2009rako, hamaika urteren ostean euskara batuan, oinarriz behintzat, burututa egozan “Meza Libu-

ruaren” eta “Mezako Irakurgaien” bizkaierazko bertsinoa aurrera erodateko. Eta taldekide eta taldeko idazkari genduan Juan Gallastegiri eskatu geuntsan lau mila eta bostehun orrialde inguru zituan testu zabalaren lehenengo bizkaieratzea egitea. Berak, isilean eta eten barik ekinez, erdi eginda eukan, 2015eko akta baten agertzen danez, bizkaierazko bertsinoaren oinarrizko eta lehenengo “zirriborroa” (holan deitzen eutson berak). Egia da harako 2009ko oinarrizko batua era askotara gehitua, zabaldua, osotua eta zuzendua izan zala 2019an eta 2020an ikusi doguzan “Meza Liburuaren” eta “Mezako Irakurgaien” liburuak argitaratuak izan diran bitartean; halan be ondo merezia dauka gure Juanito Gallastegik guztion esku-zarta eta zorion-agurra.

Juanito Gallastegiren oinarrizko lan hori kontuan izanik, neuk jarraitu dot ibilbide osoa harik eta argitaratu arte: zuzendu, aldatu, osotu, formularioz formulario liburuak eratu eta ordenatu, barriro irakurri eta zuzendu.

Eta hori egindakoan, ezinbesteko laguntza baliotsua izan dot orrialde guztien antolaketa egokia, euskara batukoan eginda egoanaren modu-modukoa bizkaierazkoan be egiteko. Eta honetan eskerrak emon behar deusadaz Mikel Azpeitia abadelagunari, arduraz, gogotsu eta zehatz egin dauan ekarpenagaitik.

Gerora be, gure lana fotokonposizina eta maketazina bialdu ostean, kontrastea egin behar neban batuko liburuak aurrean izanik, ea bizkaierazkoak hareen modu-moduan ete egozan aztertzeke. Honetan be Mikel izan dot lankide argi.

Kontraste horretan ikusitako okerren zerrenda egin, orrialdez orrialde, eta ordenagailura pasatu ondoren, neuk bialtzen neutsazan Unai Manterolari eta berak maketatzaileari. Zuzenketok sartu ostean, neugana heltzen izan dira barriro testuak, ea danak ondo jaso ebezan aztertu nengian. Eta, barriro be egin beharreko azken zuzenketak zehatz sartu eta gero, burutzen izan da liburu baktxaren konposaketa.

Azkenik, Unai Manterola bera arduratu izan da, argi eta eraginkor, inprimatze-, enkoadernatze- eta argitaratze-lanetaz. Gure benetako esker ona agertu gura deusagu liburu guztien edizino dotorea bideratu daualako.

Hona hemen, ba, adiskideok, urteetako gure lana, itxura txukunez jantzia. Izan bedi gure eleizbarrutiaren zerbitzurako eta jasotzaile guztion erabilpen gozatsurako.

Gehigarria

Meza Liburua eta Mezako Irakurgaiak liburuak argitaratuta daukaguzanean, beste erronka bat daukagu erantzunaren begira: **Ohikune Liburuak** behar doguz, ofizialak, behin betiko baimenduak eta ez bakarrik “ad experimentum” edota aldi baterako.

Zelan dagozan gauzak arlo honetan? Ba, begira:

Eginda daukaguz, euskara batuan, hurrengo honeek:

Haurren Bataiokoa

Helduen Bataiokoa

Sendotzakoa

Ezkontzakoa

Erromako Liburu Pontifikala (Ordenazioak)

Gaixoen Oliadura

Eta prestatze bidean daukaguz:

Penitentzia

Hiletak.

Dagoeneko hasita gagoz Ohikune Liburu honeen bizkaierazko bertsinoa egiten.

Lontzo Zugazaga

ELIZA BATZAR SANTUA DA BEKATARIEZ OSATUA

1.- Eta hori doktrina kristaua da, (antropologia serio guztiak barne hartuta ere, erakusten dutenak diferenteak direla jendeak eta jendeen bekatu-bideak, mailak baitaude, kultur diferentetan, izanik gaiztoena orientala, mediku premia handiena behar duena agian), eta judeo kristautasunean edukatuak izan garenok denok dakigu buruz bekatariak garala. Baina kontua ez da, katekesian edo gurasoekin, buruz ikastea bekatariak garela (hortik eskandaluak esplikagarriak izatea, eta ez bakarrik Eliza-koak). Kontua da konprenitzea bekatariak garela, humanitate osoa bekataria dela, baina ez maila berean, bakoitzak konprenitzea bekataria dela modu bakarrean, indibidualean, zeren konprenitzen hobeto ikasten baita, eta errazago oроitzen. Eta hor badaiteke ganoraz aurrera egin perfekzio bidean, perfekzio moralaren bidean, eta ondorioz politikan ere. Eta, borondate onarekin, besteen bekatuengatik ez eskandalizatu eta ez atera Elizatik. Etsai bihurtzea litzatekeena.

Buruz ikasia erraz ignoratu eta ahazten baita. Sokratesen moduan jakin daiteke, ongia litzateke ezagutza unibertsala eta gaizkia hori lortzen ez denean, ez jakitea. Hitz batean, beraz, denok gara bekatari, salbu Jesus pertsonaia historikoa, signoak egiten baitzituen, eta Jesusen ama Maria, eskrituren araber, sortzez garbia dela ondorioztatua, baina ez orojakilea, nik dakidala. Horregatik teoria sokratikoa niretzat teoria humana da, ez dogma bat. Baina oso ondo teorizatua, zenbat

eta ondoen entrenatua izan, adibidez, eta errezago garaitzea. Eta hori egia da sendotasunaz, hala nola, dihardugunean. Lehena da ondoen dakiena.

Arlo etiko orotan, salbuespenik gabe, baldin bada, hor dugu dibinitatea, dakiena a priori, libreki erabakitzen duena a priori ere. Signoak egiten dituelako, eta horregatik Jesus da gizon eta Jainko egiazkoa. Gaindiezina.

Etorri egin zait gogora konprenitzearen garrantzia. Konsziente izan bekatua dela egin dugun hori. Niretzat aurrerapen handia da, beharrezkoa guztiz, kondizio etiko humanoa hobetze aldera. Behintzat sakramentuak frekuentatzen baditugu. Konfesioan, bekatua ez da barkatua ez badago enmendatzeko propositorik, ahalaren arabera hobetzeko propositoa. Eta enmendatzeko propositoa da bidea, kontzientziarekin batera, perfekzio bidea, eta zoragarria, egiteko.

Niretzat eliztarrok bat gara salbu politikan, “Camino Neocatecumenaleko” abade don Jose Garmendia zenari amableki erraten nion bezala, izan ere espektro politiko osoan daude katolikoak, eskumatik ezkerrera, espainolismotik abertzaletasunera. Eta ez ginateke zertan etsaiak izan. Eta nik ezagutu dut neure haragian zer den etsaitasun hori. Gu bat gara fe-dean eta moralean, ez politikan derrigor.

Eta asko sufritu dudan arren, nik ere baditut hitz gogorak erran asaskatzearren, inola ere ez banatzearren. Adibidez, nik errana da ezen Jesusek erran zuela, bai, azkenak lehenak izango zirela, baina hori zehazki ez omen zuela erran, baizik eta azkenetako asko izango zirela lehenak, zeren ikusten baitira, nioen, historia eskandalosoak, oso eskandalosoak (nirea holako bat) azkenen artean. Eta azkenetako batzuk ez dira lehentasunera igaroko, diot nik Jesusi jarraituz. Justua ez litzateke izango, eta gure Jainkoa, gure Aita, justua da denen buru. Eta nire etsaiak ipiniko ditu nire oinen azpian, salmoak

dioen moduan. Salmoetan, eta Biblian han eta hemen, sufrikarioa sublimatzen ahal delako, jakinekoea denez.

2.- Ni, katoliko naizen hau, politikan sozialista naiz, eta problema berdintsu antzerkoea ikusten dut hor, gaitz egiten da asko, gorrotoak daude, inbidiak, ezin ikusiak, urruntzeak, harrokeriak, umiliatzeak, maitemintze frakasatuak, kastak, hierarkiak, baina, nik bai behintzat, hor ez dut ikusten motibo nahikoa inspirazio kristauko sozialismoari bizkarra emateko, ezta nire fedeari ere. Politika sozialista soziala miserikordiako aktoena bezalakoa da, nola egongo naiz horren kontra?. Sozialista kristaua naiz. Eskua ematen dioena kristau demokraziari. Fededuna bainaz, eta konprenitzearen filosofia lantzen dut, gaur egungo filosofia kristaua, oraingoan praktikoa. Nik horrela izendatzen dut neure filosofia kristaua. Ondorio guztiekin, hori da nire eskola. Horretara konprenitzen dudalako ondoen. Eta konprenitzea delako nire lana, nire bokazioa, nire helburu gorena filosofo bezala. Eta misterioz betetako erlijioan (filosofiaren bururaztea dena) sartu naiz, katoliko egin naiz.

Gaur egun blokeak egiteko politikaren kontrakoa naiz, eskuma eta ezkerre, denak dira onak eta gaiztoak, denengandik ikasten ahal da. Tabu batzuk apurtzearen aldekoa naiz. Eta onena gurea egitearen aldekoa ere naiz, datorrenetik datorrela. Hemen ikusten ahal du nire irakurleak marxista ez naizela. Onena hartzen diot marxismoari, hori bai, baina antierlijioke-ria hori ez. Teologia bizitik ikusia horrek hondoratu du sozialismo marxista, marxismoa. Tirania kapitalistaren aurrean hainbeste moral duena, beste aldetik.

Adibidez, arazoak zientzian duelarik arrapostua, hala nola, Santa Mariaren obulu fekundatua humanoa zen?. Hauxe da sortzen ahal diren problemen artean adibide bat. Etikoa funtsean. Lagina. Eta hori katolikook ekartzen dugu eztabaidatzeko denon artean, baina lehenik zientifikoaren artean, eta gero legebiltzarrerara. Eta badakit ateo asko dagoela, zientifisten ar-

tean bereziki. Beraz, abortuaren inguruko doktrina katolikoa katolikoek bete dezatela, esango dute ateoek.

Nik pentsatzen nuen diferentziarik ez zela egongo, marxistek baitzioten Jesusek agindua guk eginen genuela, beraz morala, nire irudiz, bera omen genuen. Baina, hori egia bada ere, diferentziak badaude, abortoarena adibide txikia da. Umeak dakarren lana uxatzearren praktikatzen dena sarri.

Eta lanaren kultura beharrezkoa ala ez ikustea, hor ere alde. Erraz konpontzen ahal dena gainera. Zientzia fikzio ganorazkorik ezin egin daiteke lan kultura ganorazkorik gabe, adibidez.

Hala ere nik apustu egiten dut eta puntu amankomun ugari ikusten ditut sozialisten eta kristauon artean, eta hortik ni politikan sozialismoan korrante kristau argi baten aldekoa naiz. Eskuman kristauak dauden moduan.

Miserikordiako aktoak, adibidez, oso puntu interesantea deritzot guk proposatzen ahal ditugun neurriak estudiatzeko, eta praktikan ipintzeko, eta hori politika sozialista baten barruan. Soziala nahiago bada, Elizaren doktrina soziala nahiago bada gogoratzea.

3.- Badakit sozialismoa teoria humanoa dela, kultura orientala tirania bihurtzen denean moralez beteta sortutako filosofia gainera, momentukoa. Hala ere kontingentea da, teoria politikoak oro bezala, eskumakoak ere hor daude, teoria kontingenteak ere, momentukoak ere. Eta etika ere humano soil delarik bada kontingentea, momentukoa ere.

Baina erroak gure teoria etiko politikoarenak jartzen badiugu etika judeo kristauan, Jesusen baitan, hor jada gu fundamentatu egiten gara ezagutza unibertsal batean, eta hor etika katolikoa, gure kasuan, ez da kontingentea, harriaren gainean eraikia delako, Jainkoaren probidentzian, signoek demostratua. Eta hortik deribatzen den politika sozialista kristaua ere

ez da kontingentea, kausa berberetatik. Eta bai harriaren gainean eraikitako zientzia praktikoa, eta beraz, ez dago kontingentziarik etika eta politika kristaua eraitsiko dituenik inoiz, kontrara, fruituak ugari ere ematen ahal dituzte. Eliza, oraingoan laiko bezala, ez da desagertzen azken eguneraino, orduan nola egongo den ere ez dakigun arren. Jesusek argi laga zuen hori, a priori erabakitzea da hori. Jesusen ahala, signoe-tan deskubritua, demostratua. Horren ukatzea, ez ezagutzea, marxismoaren hutsik inportanteenetakoa izan da.

4.- Niretzat pena handia da historikoki ezkerria antierlijio-soa izatea, (eta eskuma izatea erlijioaren aldeko, eta sozialismoaren kontrako aberatsa). Sozialisten aitzakia?, sozialismoa dagoela aberatsen erlijioaren kontra, eta kristautasuna aberatsen erlijio ofiziala konbertitzen da signorik agertzen ez denean, eta hortik hasita erlijio hitzak sozialistei higuina ematen ei die, erlijioak tapatu egiten ei du opresioa, eta traba ei da aurrera egiteko progresoa, aberatsen asmakizuna ere izan daiteke. Deabruaren lanak, eta katoliko eskandalosoen bekatuak, baina ez osoro, horregatik nik deabrua ere ipintzen dut ateo askoren eragile antikristautasunean, “arrazoizkoa” baita.

Moisesekin ikasten ahal da nola gure Jainkoa pobreenekin dagoen, tiranien kontra. Hari ez zaio inporta, mundu honetako hierarkizatzeak, pertsona denak maite ditu, bereziki po-break gainera maite ditu. Mirariak egiten ahal ditu. Horrekin dena esanda dago. Hierarkiak Jainko Aitak nahi duen moduan jartzen ahal dira. Eta sozialismoak irauten badu kristau iraungo du.

5.- Ni, denen buru, kristau politika baten alde nago, erreztu Jainkoaren legea betetzea, minimo bat. Oso lotuta kristau doktrinari, Jesusen mezuari, irakaspenari. Hari lotua. Baina nik ez dakit heresietan pentsa daitekeen gaur egun politikan, nik pentsatzen dut beti sortzen ahal direla. Beldur pixka batekin idazten dut, hain zuzen ere, horregatik. Eta, hori dela eta,

nire gainean aita santua jartzen dut (Pedroren katedra), hori baita katolikoon buru desterru honetan. Eta baita ukatu egiten dut ere nire filosofia, azaldutakoan jakina.

6.- Irakurri dut Zenit kazeta katoliko digitalean ezen progresismoa Elizaren etsaia dela, progresismoaren helburua dela gainera Eliza amaitzea. Nik ez dut ikusten Eliza amaitzeko arriskuan, inoiz ez da egongo, abentura bezala irudikatzen ahal bada ere historia, Jesusek a priori asmatu zuen. Nik Eliza-ko eskuma ikusten dut hor bere piezak mugitzen. Ni progresista naiz, eta baita eliztarra ere. Errespetatzen dut hierarkia. Eta progresista bihurtu nahi ditut.

7.- Nik ez dut irtenbiderik topatzen dauden problemetarako. Unean uneko problema praktikoak ikusten ditut, nire ikuspuntu katolikotik tratatuak, ez naiz gehiagora iristen. Eta estuasunak ditut. Kultur kanbioa proposatzen dut, eta antropologiatik frogagarria da hori posible dela. Hara hor nire ekarpena politikan. Ekonomian joera birbanatzailea nagusi den gizartea proposatzen dut, eta ezkerretik zein eskumatik hori onartu daiteke bakearen mesedetan. Eta borondatea ego-
nez gero bada gauzagarria.

Roman Garmendia

LITERATURA

KONTU-KONTARI

**AZKORREKO SAN ANTONIO ABADÉAREN GELA
ISILEAN AZERI NARRU BATEN
IZKIRIATURIKA URKITURIKO
XV. MENDEKO KRONIKA LABURRA**

Antzina baten, gure gurasoek be holan esaten eben, oso antzina zuhaitzek, bedarlandareek, abereek eta bizia euken guztiek euron artean berba egiten ebenean edo kontuizu!, sa-soi haretan beraz, urak euron errekabidean oheratu ziren sa-soi haretan, Abadiñoko lurretan harrizko etxe haundi bat agertu zen eguna zabaltzerakoan.

Harlanduz eragıtako etxe miresgarri bat. Baina eguna zabaltzeaz bat haretx eta pago tantaiek, ikaraturik, euron hitzegiteko ahalmena galdu eben. Zergatik ba ikaraturik? Ba, basoko zuhaitzik garaïenak edo aproposenak altzairuzko trontzaz zirrrrrrrriiiiiinnnn-zarrrrrrrrrrraaaaaaaan hotsean ilun hotezan zurginen batzuk ebatsi eutsoezan basoari eta etxe haundi horretan agertu ziren.

Muntsartz dorretxea deritzo etxetzar horri eta kanpotik harea harrizko harlanduak badaukoz be etxe barreneko zuta-beak eta hagak munduan eguna zabaldu zenekoak ei dira.

Landareek, abereek eta enparauek berbetako dohaina galduta lasterrera harginek eta zurginek etxetxoak egin ebiezan

dorretxe horren inguruan baina ez ziren ausartzen hor barruan bizi zenagaz hartuemonik eukitera. Bizi zenagaz... bizi ete zen inor? Batzuetan haizetxistualango zotinak entzuten ziren han barruan. Inoiz ekaitz haize bijorra, dorrea bera be bere oinetik atara eta eroateko modukoa. Beste batzuetan...

Aurrez aurre Anboto amillenez jantzirik eta Anbotoko hatxa horretara egoenean entzuten ziren batez be Muntzarazko dorretxe barruan intziri gozo-misteriotsu ikaragarriok.

Udagoiena Oiz mendian irago ostean negurako Muntzaraztera jatxi ohi zen Mari, Mari Urrike. Muntzarazko teilatuean iragoten ei eban negua eta haize hotsen lantuok bere dardara, ulua eta... gizonezkoren batzuk be... esaten ei zen...

Bagilean, kukuaren azken kantu hotsakaz batera, sekulako haize zurrunbiloak entzuten ziren Muntzaratzen eta hurrengo negura arte bakea. Bai ba, Mari Urrike Anbotora joaten ei zen uda sasoian bere edertasun eta dotoreziaz hemen beheko troketan euezen gizonezkoen zainetan odol zurrunbiloa sortarazoteko.

Eguzkia goren dagoen aroan, bagilean, gaueko iretargi betean, Anboton, baina ez Anboton bakarrik, Mari Urrikek esaneiko tokietan alkartuten ziren gizonezko eta andrazko. Jan-edanaren ondoren, artxoa eta sagardoa jan ta edan ostean tanboliñean ekiten eutsoen dantza eta dantza indarrak ahitu arte eta zelan ez, gazte sasoikoek begien ñirñirrean eta arnasestuko suspirioetan izarren izarapean iratzeetako iruntzak batzen ebiezan ugaltasunaren jai mahaian jazotako indarrak aseztu.

Halan be, lur honetako zoria betirakoa ez denez bela bal-tzen antzera jantzitako gizonezkoak ailegatu ziren inguru honetara eta Etxebarriko San Agustinen, Apatamonasterion eta San Trokaz Abadiñon dorreak eta etxe haundiak jaso ebiezan. Ez horrek bakarrik, lehenago tanboliñ hotsa entzun ohi zen toki gehienetan artxoa erre ta jateko harrizko mahaiaik kendu

eta horren ordez aterpe ilunak jaso ebiezan gure haran eta larinak euron eleiza edo baseleizakaz ordezkatzuz.

Lehenengotaz ondo konpontzen ziren danok, baina alkarrenganako mesfidantza sorturik egoen. Zein baino zein! Hala jarri ziren senitartekoak euron artean, auzoak auzoari bekaizti begiratzen eutson eta alkarren salatari bihurtu ziren. Gizona bere emaztearen labankadaren beldur, etxeko alaba goruetan auzoko mutilak eztena noiz jaurtiko zain, amama zaharra bere ezpan tximurtuekaz sehaskatxoko haurtxoari obabaten begixkorik inork bota ez dakion, etxekanderea amamaren zelatan...

Halango batean Menina Arandoñoko dorretik kanpai hotsak. Intxorta barrenetik eta Guardiara bitarteko andra ta gizon denok aztoratuta. Asko ta asko ihesi, bildurturik, ikaraturik. Asko izkutatuta hatx zuloetan. Hamaikatxo senitartekoen tzat erruki eske. Erre. Artxo lez, gure bildots-artxo lez erre egin behar ei ebiezan.

Kanpai deiak Durangon. Baltzez jantzirik eta zurezko ohol tzaren gainean, Arandoñoko plazan mutiko batzuk ziriolak ixioturik eukiezela, **Martin Gorgonio de Iraçabal** abadea eta bere alboan ahuntzaren mantilla lehortuan idatzirik eukon **Antonio de Çamalloa** eskribaua sententzia ahots goran jende aldra izutuari honetara leituz:

IesuCrist gure Jaun eta Jaungoico danetic millalauehun eta berrogeita batgarrenean eta urrilebenac hamalau dituzen honetan, Aita Kurutzekoaren egun deun honetan, sorguinquerian bizi diranok intxaurgaraunez, sapo, sугearrautza, abarritobarrabillez eta zegaz ez! euron uquenduak eginez aquelarrretan batzen direala autortu dabienoc, su bixitan erretara zigortu dituguz.

Badaquigu jaquin beste apurren batzuc be holango ibillere-tan billeretan dabizela baina goiz ala berandu eta euroc uste baino bizcorrago sugarretan izango dituguz horrec be, eta ho-

lan gure artean nabaste borrhaste lobiric ez da izango eta euskaldunoc christautasun erlijio berdaderuaren zabal dian garbitasunaren eredu izango gaitue beste herrialdetacuoc.

Eta Martin Gorgonio de Iraçabal abade txit argi eta benegarriac Confesiño santuan entzundacoaren ostein, nik Antonio de Çamalloac, CASTILLACO MAJESTADE ENRIQUE ERREGEREN Escribau lez, christiñauak ez direalaco sutan erre daitezela agintzen dot: Sancho Perez de Herçilla eta bere emazte Mary Ruiz de Yturriaga, Otsanda de Lariz eta bere bizilagun Otsa de Berriz, Joannes Peru de Echaburu eta Otsanda Ruiz de Çumarraga emagalduba, Ortuño de Yturriça, Joana de Hegurrola, Otsa de Unda, Sancho de Helorriaga, Andres de Çuricaray eta danon erdian Cathaliña de Muntcharaz, inguruetako sorgin, ematzar, umejale, haragiqueria, lobizale, catuhaize, chistudanboliñ, Aquer Baltzaren obaide... Erre! Erre bitez gaur eta bemen gu guztion aurean zuon eskarmenturako eta begoz inpernuetaco su eternalean beti betico aienaca eta txilioka!!!

Honango gauzak bizi izatea eta ikustea suertau jatan. Beste lagun batzuekaz batera hementxe Azkorren izkutatu ginen San Antonio Abadearen ermita honetan Arandoñoko abade den **Iraçabalen** konfesionariotik eta erregeren eskribauaren, Çamalloaren lumatik urrin eta gure bizimodua aspalditik hona tontor honetan dagigu. Hara hemen zeintzuk garien: **OrtuñoImitteko, Otsa Larreako, Santxo Gaztea Larrazabalgo, Prosdozimo** eta bere aita **Krispulo Gastañatzatorreko, Luzia Geretako, Genara Bababarriko, Domenja Çallonizko, Joaquina Berrojako, Paxio Uriengo, Estanix Etxeitabeko, Joseph Ludovicus Solagarayko, Malen Landaluzeko, Pere Bargundiako** eta ni neu **Dominicus Ebanisto Gezunbarreneko**.

Holan izkiriaturik, gerokoek jakin dagien gela honetako saietarako ezkerreko harlanduak daukon zulo-bitartetxo horretan izkutaten dot San Antonio gure jaunaren egunean, neguko urtarrilaren hamazazpigarren egunean, basokoipetsuegin

ostean, Jesu Kristo gure Jaun eta Jaungoikoa lurreratu zenetik millalauehun eta berrogeita hamaikagarrenean.

Txori-habia ikasten nebilen Saratsartetik Azkorra bitartean zapatu erramu goizez eta txingor inetaziak harrapatu nindue-
nean tontor horretan dagoen ermitako aterbera hurreratu nin-
tzen. Txingor izoztuaren kazkabar hotsak teilatuaren kontra
musika kontzertu bateko perkusioaren azken konpasetako
molto vivace adierazoten eban. Hor nengoela hareharrizko
zutabe eder horiei so hara non sakapetik zintzilik abarka na-
rru edo... hatzamar bigaz heldu, tiretu... sinistezina! Sinistezi-
na benetan. Altxor bat neure esku artean. Bihotza taupadaka.
Txori habiak ahaztu eta atertu dauenerako ariñeketa baten, ar-
nasa bueltau ezinik, begi aurrean dozun Erdi Aroko idatzi ho-
rren transkizioa egitera ekin deusot.

*Eta hau guzti hau bolan izan bazan eta ezpazan sartu de-
dilla kalabazan eta biztu daitela Muntsaratzen tanboliña
dantzaz*

*Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloa
Ijorretan, 1999.go pazko-erramuz*

PIARRES LAFITTE, ITSASU ETA MURTUTS

Abantzu bost urte badira erretretan sartu nintzela, eta jadanik irakaskuntza kontuak aski ahantziak, edota alboratuak, ditut. Baina lehengoan, txiripaz, *Murtuts eta bertze* liburua eskuetara etorri zitzaidan eta horrek hainbat oroitzapen ekarri zizkidan burura. Irakasle gisa egin nituen azken hamabost urteak Irungo Txingudi ikastolan eman nituen, eta hainbat urtetan, euskarako irakasleok gure ikasleak Donazaharreko Salha jauregira eraman izan genituen. Hango ederra! Hango oiha-nak! Hango jende onak! Inguruetan bazen lantoki edo tailer mekaniko bat, urte oroz gure harridura sortarazten zuena, baina ez erabilitako teknikengatik edota eraikinaren itxura bereziagatik, haren izenagatik baizik. *Mutrustegi* izena baitzuen, guretzat arras ezezaguna zen izena.

Urtero gauza bera galdetzen genion elkarri: *Zein da Mutrustegi hitzaren erranahia? Zein izen dago hor barruan?* Joan ginen azkeneko urteetako batean Markox Balentziaga irakasle bergararrak afera argitu zigun: *Itxura horretako abizenek pertsona izen bat atxikitzen dute barruan. Demagun, Satrustegi Saturren tokia da, Petritegi Petriren tokia, eta Mutrustegi Murtutsen tokia.*

Eta zer izen da Murtuts? –galde egin genion denok harririk, eta Markoxek erantzun: *Fruktuoso, Furtuts edo Murtuts sainduaren izena. Itsasuko elizaren izena Jondoni Murtuts*

da, berari eskainia baita eta berak ekartzen baititu urte oroz gerezi ederrak eta ugariak Itsasu herrira.

Horrela ezagutu nuen Murtuts izena, eta gerora, berriz euskal literatura aztertzean, Piarres Lafittek 1945ean plazaratu zuen *Murtuts eta bertze* izeneko eleberriaren berri ukan nuen. Ikus dezagun jarraian.

1. Piarres Lafitteri buruzko hainbat zehazkizun

Piarres Lafitte Ithurralde Lapurdiko Luhuso herrian sortu zen 1901. urtean. Zazpi urte zituela umezurtz geratu eta Zube-roa aldeko ahaideekin hezi zen. Beloken eta Baionan ikasketak egin ondoren, aipatu azken hirian apaiztu zen. Uztaritzeko Seminarioan irakasle zela lortu zuen Okzitaniako Tolosan hasitako lizentziatura.

Gazte-gaztetik euskaltzale sutsua agertu zen. *Euzkadi* aldizkari jeltzalean maiz idazten zuen Saint Pierre apezpikuak abertzaletasuna piztu zuen Lafitterengan. Geroxeago, 1932an, Eugène Goihenetxeren eskutik Aitzol ezagutu zuen. Orduz geroztik, Hegoaldeko politikagintza hitzez eta ekintzez jarraitu zuen, beti EAJko ideietatik hurbil. 1933. urtean, *Euskal Herriaren alde* programa politikoa idatzi zuen. 1936ko gerra piztu zelarik, Hegoaldetik Iparraldera ihesean etorritako abertzaleei fermuki laguntzen aritu zen. II. Mundu Gerran mobilizatua izan zen eta berehalaxe erresistentzian buru-belarri sartu.

Euskararen eta euskal kulturaren aldeko militante gartsua eta nekaezina izanki, Ipar Euskal Herriko aldizkari eta agerkari ia guztietan idatzi zuen. Berak jarri zuen martxan, Mixel Labegerie, Piarres Lartzabal, Legasse anaiak eta Xarritonekin batera, 1934tik 1937ra plazaratu zen *Aintzina* hilabetekaria. 1944an, *Eskualduna* izeneko aldizkari ospetsua desagertu zelarik, *Herria* aldizkari berriaren sortzaile eta zuzendaria izan zen. Egun, aldizkari hau Ipar Euskal Herrian zabalkunderik handien duen kazeta da. Aldizkari honetan elizarekiko harre-

mana mantendu bazuen ere, haize berriak ekarri zituen euskalgintzara. Urte zombait berantago, Monzon eta Sotaren laguntzaz *Gure Herria* kultur aldizkaria abian jarri zuen. Bere obra nagusizat hartzen den “*Grammaire basque*” oinarritzko gramatika-liburua garai haietan kaleratu zuen.



1952az geroztik euskaltzain osoa izendatu zuten. Idazle oparo moduan, gramatika eta hiztegi gintzaz gain, antzerkia, olerkia, ipuina, biografia eta saiakera landu zituen. 1982an Euskal Herriko Unibertsitateko *honoris causa* izendatu zuten. 1985an *Ipar Euskal Herriko Atlas Linguistikoa* egiten ari zela hil zen Baiona hirian. Urte berean omenaldi beroa egin zioten eta horren karira, bere biografia eta lanak biltzen dituen liburu ederra plazaratu zuten azken agur gisa. Liburu hau ezinbestekoa da Piarres Lafitteren ibilbide pertsonala zein literarioa ongi ulertzeko.

Liburu ainitz plazaratu zuen eta genero ezberdinetakoak: antzezlanak, bertsoak, ipuinak, saiakerak, ikerketa lanak, olerkiak, narrazioak... eta horien guztien artean, 1945ean, Aintzina argitaletxearen bitartez, argitaratu zuen *Murtuts eta bertze*

(*arto xuritzeko zonbait ixtorio zahar*) izeneko liburua. Bertan, *Murtuts* izeneko eleberri laburraz gain, badira beste bospasei kontakizun.

2. Itsasu herriari buruzko zehazkizun zenbait

Itsasu herria Lapurdiko udalerrria da eta gaur 2.200 biztanle inguru ditu. Iparraldean Kanbo eta Larresororekin egiten du muga, mendebaldean Ezpeleta eta Ainhoarekin, ekialdean Luhuso eta Bidarrairekin, eta hegoaldean Baztango hainbat herrirekin. Itsasuz gain honako auzoak ditu: Zubeleta, Zuheleta, Errobisala eta Plaza. Artzamendi (931 m) Lapurdiko mendirik garaiena, udalerrri honetan kokaturik dago, baita Mehatxe eta Mondarrain mendiak ere. Errobi ibaia bertatik pasatzen da, eta gerezi ekoizpena izan da luzaz Itsasuk izan duen produktiorik ezagunena.



Itsasu herriaren izena ez dator itsasotik, baizik eta, Gipuzkoako Ezkio-Itsaso eta Itsasondo, Nafarroa Garaiko Basaburuko Itsaso, Nafarroa Behereko Jatsu eta Lapurdiko Jatsu herriak bezala, isats zuhaixkatik. Hainbat deiturretan ere belar hori agertzen zaigu: Isasa, Isasti, Isasmendi... eta abar.

Herri zaharra dugu, zalantzarik gabe, haren historiaz zehazkizun handirik ez dugun arren. Erdi Aroko zenbait dokumentutan Lesaka izenaz deitzen dute gaur Itsasu deitzen duguna. 1794. urtean, Frantziako Konbentzioko soldaduek itsasuiar gehienak Landetara erbesteratu zituzten, saratarrekin eta azkaindarrekin batera, Hegoaldekoen adiskideak zirelakoan. 1963an, Iparraldean egin zen lehen Aberri Egunaren kari, *Itsasuko Agiria* izeneko aldarrikapen abertzalea izenpetu zen bertan. Ordutik bada harri bat hori oroitzen diguna. XVII. mendeko eliza ederra du, hilarriz beterik den hilerriaz inguratutik. San Fruktuoso edo Jondoni Murtutsi eskainia da.



Jondoni Murtuts eliza

3. Murtuts istorioaren nondik norakoak

Kasualitateak eta koronabirus izurriak ekarri didate aurten aipatu liburua eskuetara. Aspaldian nuen erosia irakurtzeko asmotan, baina etxeko liburutegiko apal batean, beste liburuen artean eta hautsak harturik zegoen, nire burutik arrunt ahantzia. Irakurtzeko zerbait bilatzen ari nintzela, topa egin nuen Lafitteren liburua eta berehala irakurtzeari ekin nion. Hau ustekabea! Ez nuen horrelako irakurketa atsegin eta umoretsua inolaz ere espero. Hasiera-hasieratik gatibatu ninduen eta amaitu arte irakurri nuen den-dena, pausa handirik egin gabe.

Hara! A zer umorea! Eta a zer nolako kritika euskal gizarte zaharrari!

Ez du urterik aipatzen, baina XVI-XVII. mendeetan koka daitekeela iruditzen zait niri. Istorioa Lapurdiko Itsasu herrian gertatzen da, eta Zanpagarai erretora dugu pertsonaia nagusia. Lafittek kontatzen duenez, garai zaharretan mareek itsasoko arrainak eramaten omen zituzten Itsasura, orain baino bide zabalagoa eta sakonagoa zuen Errobi ibaitik barna, eta itsasuiarrek hori ederki baliatzen omen zuten arrain ederrak arrantzatzeko eta saltzeko. Sos-iturri handia omen zen itsasuiarrentzat. Baina, halako batean, eurite handiek luiziak sortarazi zituzten eta hauek Errobi ibaiaren urbidea ederki txipitu zuten. Orduz geroztik ez zen itsasoko arrainik Itsasura sartu.

Itsasuiarrak ederki zapuztuta gelditu omen ziren, eta orduan erretorari bururatu zitzaion eliza eta Itsasuko lurretan ernaltzen ziren fruituak, gereziak batez ere, Fruktooso izeneko saindu bati eskaintzea (Murtuts euskaraz erraiten dena), itsasuiarrek beste sos-bide egoki bat ukan zezaten. Horretarako erretorak elizako bazter batean, hauts artean lo zegoen estatua zahar bat atera eta Jondoni Murtutsena zela erran zuen. Aldare ondoan ezarri zuen eta horrela aurkeztu zien Itsasuko biztanleei. Haatik, asmakizun hau ez zen interesik gabea izan, ez, Itsasuko laborariek herrian sortzen ziren fruitu guztien kopuru jakin bat, Jon-

doni Murtutsi eskaini behar baitzioten, horiek janez, saindua Itsasun pozik bizi zedin, bertako herritarrei oparotasuna ekarriz. Eta horrela egin zuten luzaz. Negozio ederra zela dirudi, eta fruitu horien salmentak ekartzen zituen sosak erretoraren eta herriko etxekoen xarpetara pasatzen ziren.

Baina gezurrak bide laburra duela erraiten dugu euskaldunok, eta horrela gertatu omen zen Itsasun. Herrian ba omen zen fraide kaputxino nafar bat, erretorarekin gaizki konponetzen zena, eta behin, aldarean zegoela, herritar guztien aitzinean, Jainkoari eskerrak ozenki eman beharrean, erretoraren asmakizun eta ebaztea gogor salatu zituen. Erretora eta auzapeza oldartu zitzaizkion, goiko galerietatik herri kontseiluko norbaitek kadira bat jaurti zion burura, eta ostikada eta ukabilkaden artean elizatik eta herritik igorri zuten betiko.

Hala eta guztiz ere, fraide kaputxinoaren hitzek nolabaiteko mesfidantza sortu zuten herritarrengan, eta orduz geroztik, laborariek ez zioten Jondoni Murtutsi lehen bezainbeste fruitu eta barazki eskaintzen. Negozioa behera zihoakiela ikusirik, erretorak beste trikimailu bat asmatu zuen. Larunbat gau batez sainduaren estatua hartu eta urruneko pentze batera eramatu zuen. Igandeko mezara joatean, itsasuiarrek sainduaren hutsunea sumatu eta Zanpagarai erretorak aldaretik, haien zuhurkeriari egotzi zion sainduaren alde egitea. Gose baitzegoen, gaixoa! Eta horregatik beste herri batera abiatua omen zen. Itsasuiarrak bideetara atera ziren bila, eta azkenean, urruneko pentze batean aurkitu zuten. Herrira eramanez, aldarean ezarri, eta orduz geroztik, lehen baino fruitu eta barazki eskaintza handiagoak egin zizkioten, erretoraren eta auzapezaren bozkariorako.

Baina hor ez da istorioa bukatzen, ainitzez luzeagoa baita. Hortik aitzina istorioa korapilatuko da, eta erretoraren diruzalekeria eta laborarien ezjakintasuna are eta nabarmenago galdituko dira. Jaun erretora diruzale eta aprobetxategi galanta

zen, laborarien ezjakintasunaz ederki baliatzen zena, eta ber neurrikoak, herriko auzapeza eta kontseilariak.

Hau dena kontatzeko, Piarres Lafittek herriaren euskara erabiltzen du, biziki aberatsa dena, eta umorez zipriztindua. Harrigarria da apez batek horrelako kritikak egitea, eta hainbat apezten diruzalekeria eta faltsukeria horrela salatzea. Adore handiz jokatu zuela erran daiteke. Beharbada, horregatik izenpetu zuen P. Ithurralde izenaz, hau da, bere bigarren deituraz, nolabaiteko anonimatua atxiki nahian. Modu batean edo bestean, eskertzekoa da liburu honekin egindako kritika saio garbia.

Eleberri hau dugu euskaraz egin den lehenetako bat, ez da sobera luzea, baina bai ederra, ongi kontatua eta umore handikoa. Argitalpen berri bat merezi duelakoan nago, eta biziki egokia ikusten dut antzezlan moduan moldatzeko eta jokatzeke. Lafitte berak tituluari arto xuriketan kontatzeko istorioa dela dio. Arrakasta handia atzemanen lukeela uste dut. Badira Iparraldean hainbat antzerki-talde, urtero-urtero, lan berriak jokatzen ibiltzen direnak. Ea horietako baten bat animatzen den Murtutsen istorioa berridazten eta jokatzen. Herriaren pozgarria litzateke.

Joseba Aurkenerena.

SAIAK ZERUAN DANTZAN

Biarnoko gizon bat zen, Pauen sortua. Irakaslea zen, baina kirol irakaslea eta gainera kirol irakasleen irakaslea. Gizon sanoa eta zintzoa zen. Bere bizi guzia menditik hurbil ibili da eta garai batean ere, Frantziako eski taldearen entrenatzailea izan da. Guy Dupont deitzen zen eta erretreta hartu eta aski laster, bere emaztea zendu zen. Pena handia sentitu zuen eta erabaki zuen opporretara joan behar zuela aire hartzera.

Bere karabana hartu eta gero, Euskal Herri aldera abiatzea erabaki zuen eta itzuli batzuen ondotik, Azkaineko herrira aliatu zen. Gustuko herria zuelako, hor bertan pausatzea erabaki zuen. Larrun mendiaren azpian kokatu zuen bere karabana eta hor beste bizi berri baten hasiera eman izan zuen. Ezker-eskuin ibili da, jendeekin harremanetan sartu, inguruko mendiak kurritu eta Euskal Herriaren ohiturak bereganatu. Gizon idekia zen eta bihotz onekoa. Azkenean, Azkaine herria gustukoa zuelakoan, eta lagun onak egin zituenekoan, etxe bat eraikitzea pentsatu zuen. Herritar gazteen laguntzarekin etxe polita eraiki zuen, *Eusko* lokarri izenarekin. Herriko errugbi taldearen entrenatzailea izan zen eta ordu geroztik, Azkaineko ainitz gazteekin gurutzatzen zen. Eta euskaldun sentitzeko asmoa zuelakoan, Herriko kultur eta euskaldun elkartean ibiltzen zen. Hala nola, AEKn kurtsuak hartu zituen eta kantua maite zuelako, Martintxo kantu taldean ere, astero, ibiltzen zen euskal kantuen ikasten. Bere 80 urterekin, Laborantza ganbararen bilkura guzietan joaten zen eta inplikatzan

zen. Anekdota bezala, aipatu nahi nuke, nola berak, *Ideki* zerrendan zelarik, auzapez zenaren zerrendaren aurka, bistan da, joan zen Herriko Etxera bozkatzera, pankarta batekin bizkarrean eta tripan gainean pausatua zuena nun idatzia zuen:

“Tori zu, jaun auzapeza, zahar baten erantzuna”

Erran behar da, Auzapez horrek, kritika itsusia igorri ziola *Ideki* taldeari erranez holako gizon zaharrik ez zuela tokirik beraien zerrendan. Hori aparte ere, egun batez Martintxo taldean zelarik, lagun batek galdegiten dio nola zen eta berak erantzuten ongi, poliki-poliki oinez ibiltzen zela eta orain kurkuluiekin lasterketa egiten zuelarik ez zuela beti irabazten. Umorea erabiltzen zuen gizona. Azkenean euskaldun munduan sartu zen eta erraten ahal da euskaldun bilakatu zela...

Egun batez, gazte batzuekin bildu zen eta hasi zen bere heriotzaz hitz egiten, berak nola nahiko lukeen mundu hone-tatik joan. Proposatu zien gazteei, hilko zen egunean, Larrungo erreka bazter batetara botatzea bere gorpua, saiek jan zezaten eta izadiak egin zezala bere obra. Hala ere, galderak egin zituen jakiteko ea legez egiten ahalko zen holako ‘ekin-tza’ eta erantzuna bakarra izan zuena ezezkoa izan zen eta ilegala zela. Pena handi batekin hartu zuen administrazioaren erantzuna...

Ehorzketak

Guy Dupont zendu da! entzuten zen Azkaine guzian. Ehorzketak antolatu zituzten herriko elizan eta meza eder eta kantatua eman izan zitzaion. Guyren omenez jende ainitz bildu zen. Gorpua elizatik ateratu zutenean, itzal bat sentitu zen, iduzki tapatua balitz bezala, eta jendeek zeruari begira ohar-tu ziren saiak zirela elizaren gainean eta bazterrean, hurbil-hur-

bil, bira-bira egiten zeruan hilkutxaren gainean. Hor ziren gu-
ziak harrituak egon ziren eta gaur egun, beti aipatzen da.
Saiek omenaldi eder bat eskaini zioten Guy Dupont jaunari
eta administrazioaren erabakiarekin ez zirela ados erakutsi zu-
ten. Ez ote zen gure sinesmen zaharren keinua?



Emozio hori pasatuta, Guyren alabak eta Azkaineko gazte batzuk igo ziren Larrungo mendira, akordeoia eta gitarrarekin omenaldi bat egitera Guy Dupont jaunari. Musikarekin batera, Guyren hautsak zabaldu eta hedatu zituzten Ihizelaitik Azkaine herriari buruz. Haizeak *Eusko* lokarri bere etxe aldera barreiatu zituen. Momentu hunkigarria eta goxoa izan zen...

Xerar Urrutia Jorajuria

OLERKIAK

EUKENE LIZEAGAREN OLERKIAK

*Udazkeneko haizearen
lurrin pitin bat gorde dut.
Neguko maindiretan
tanta batzuk ipintzeko.*

ISILIK.

Isiltasunaren esparruan
babesten naizenean,
ez dit hots egiten,
ez diot hots egiten,
ez dago zoruan kraskarik,
ateetako ate-zangoek
ez dute karraskarik egiten,
erosotasuna da nagusi.

Bere bide bereziak
iragankortasunaz
eginak dira.
Ezinezkoa da
hitzez egindako bidea egin.
Bideak, berehala desegiten diren,
itsas ontzi baten uharak dirudite.
Ez dago sarrerarik,
irteera behar ez duen eremua da.

Egoten naizen denbora ez da mugatua,
ordularia begiratu gabe,
biak dakigu, nahikoa noiz den.

Isiltasunaren eremuan nagoenean,
gailurra ikusiko duen, ala ez,
inoiz pentsatuko ez duen
edozein aberea bezalakoa naiz.
Ez dago oraina, ez iragana,
ezta ere geroa.
Hori, ez nagoenean itzultzen da.

ZERUMUGA.

Mendia eta hodeiak,
itsasoa eta zerua,
begiradak amaitutzat
onartzen duen errepidea.

Egunsentiko marra.
Anitz kolorez egina.
Non, batzuetan, hodeiak
eta mendiak, bereizi ezinak dira.

Zeruertza, hodeiertza, ostertza...
Izen ezin ederragoak
asmatu dizkiogu,
egia ez dela
jakin gainean egon arren.
Halere, naturaren mirariei
izenak jartzeko
beharrean gaude.

Inspirazio betiko iturria,
guretzat harrigarria,
bizitzaren sentsu emailea,
hain da txundigarria!

ZALANTZA.

Zalantzan nago
poema honen izenarekin:
Negua edo Otza?
Negua, otzarekin parekatzen al dugu?
Otza, Neguarekin?
Bat baina gehiagotan literala ez izan arren?
Neguan, badaude epe epelak,
Beste urtaroetan, otza dagoela
esaten badugu ere.
Ni, hezurren min-koskak
sufritzen ditudanean, ari naiz.
Usadioz ikuste ez dudan arnasa,
ahotik, lurrun moduan irteten,
begira geratzen naizenean.
Oheratzeko, edredoi beroa
ipini behar dudan garaia denean.
Eta, ohe barruan, ionak berotzeko
galtzerdi-motzak jartzen ditudanean.
Udan zabalik egon diren leihoak
itxi behar ditudanean.
Kaleratzeko orduan,
berokiaren, saboten,
artilezko jertse lodien zama,
soinean daramazkidanean.
Negua, ala Otza?

BARNE HUTSUNEAK.

Badira bete ezineko hutsuneak.

Bakoitzaren barne hutsuneak dira.

Gure baitan lekua hartu ondoren, joan direnak.

Bere ordeztu, bete ezineko zuloa utzirik.

Bizitzaren zehar bizitakoen ezinbesteko galerak.

Zeru argi, edo lainotutako arbelean
betiko irarri ditugunak.

Bihotzerako abaztu ezinak.

Zerumugaren harantzago daudenak,
ezagutzen ez dugun amaigabeen.

*Bebin betiko zoriona heldu naian,
maitasunaren magalean gorde direnak.*

ZERU GUZTIAK.

Zeru guztiak berdinak dira,
aldi berean,
ezberdinak diren batera.

barnean dira,
Itsas anitzeko zeruen koloreak,
herri xume eta aberatsen zeruen koloreak.
Bere euri mota guztiak.
ura edo harearen
ekaitz amorratuak.

urdirin nabardura eguzkitsuak.
Ilargi apalaren begirada guztiak.

lurraren errotazioan egon nahi nuke.
Bat diren eguzki guztietan,
bat diren urtaro guztietan,
bat diren ilargi guztietan,
bat diren ekaitz guztietan,
bat diren kolore guztietan.

Geldi ezineko, lur honen
egunsenti eta ilunabarretan
bizitzeko.

IRRIBARREAK

Ez ditut maite,
ezpain hertzaren kontrolpean
geratzen diren, irribarreak.

Benetako irribarreak
bihotz zabalak dira.
aurpegiaren osotasunean
edatzen direnak.
Zimurrei bide emanez,
begiak pizten dituzten, irribarreak.

Egunsentian,

eguzkia zutitzen denean,

martxan jartzen du gure kronometroa

ilargiari ohia uzteko,

baztertzen ditugu gure ametzak.

GOIZALDEAN.

Goizaldean,

nire eskuekin katilu eginda,

ihintza pixka bat jaso nuen. Nektar arkanoa.

Orain eskaintzen dizudana,

bakarra eta miraria,

izan zaitezen egunerokoan.

Eguzkia eta

huriaren muga dago

beti, ostadarra.

HITZ LURPERATUAK.

Isilik egotearren

anitz hitzak lurperatu nituen.

hitz hauen artean

Batzuek, indarra gordetzea,

ezin izan nuen saihetsi.

Berezko sustriak sortu ondoren,

lur azalean ernatu,
eta goroldio mantu zuhurtziaren
magalean babesturik,
libre hazi ziren.

Horrelakoa izan zen beraien adieraztea,
nire jabetzaren baitatik urrunduz zindoazen batera.

ORAINTXE

zerumugan az
altzen
hasi diren argi izpiak,
oraindik, ez dute hiria heldu.

Kanpora atera naiz.

Arnasa askatzerakoan,
laino zuria zela ikusi dut.

Landareak zain ditut.

Freskuraren egoitzan
zutiturik
bat egiteko unea.

Elkarrik antzematen gara.

Beraiek unibertsoa
besarkatzeko duten eran;
ihintzaren begiekin.

Ulertu ezina den bizkuntza horretan.

Non eta maitasunaren misterioan
murgiltze ez bagara.

Horrela, elkar laztantzen dugu.

SARTU...

Begirada garbien bilatzailea,
begirada zuzena duzun hura,
begirada jaisten ez duzun hori,
begiradan bihotza jartzen dutenen bilatzailea.

Itxaropenaren ekarlea,
berri onen postaria,
udaberriko enara,
txioka datorren txoria,
udazkeneko urre kolorea,
zerua zeharkatzen duzun txori bidaiaria.
Baimena eskatu gabe, sartu.

Biltzera zatozena,
zaintzaren sinboloa,
guztion laguna,
zeru lurreko ostadarra.
Aurrera...

Eukene Lizeaga Tamayo

XERAR URRUTIAREN OLERKIAK

BEHEROBIA

(Pausu)

Lehen Beherobia,
Lapurdi, Gipuzkoa,
hurbildu dituena,
bien arteko zubia.

Baztandik etorria,
Bidasoa bilakatu da,
ibaia bi aldetan,
bizi berria du eman.

Gero Behobia izan da,
pausaleku polita,
arrantzale, laborariek,
bizarazi dutena.

Euskal Herria zatitzean,
eman dute bi pusketan,
Iparra eta Hegoa,
erresuma desberdinetan.

Behobia bi aldetan,
 Berlin bezala garaian,
 ezinezkoa Alemanian,
 onartua Euskal Herrian.

Lotsagarritzko pareta,
 mundu osoak salatua.
 Gure kasua ez al da
 berdin konparatzekoa?

Behobia moztuta,
 zazpi herrialde dituen,
 herri martiriaren,
 haustuaren sinboloa.
 Hainbeste urte darama,
 Behobia zatitua dela,
 munduak jakin dezala,
 bateratuko dugula.

IBARDINGO ARTZAIN-NESKA

Ibardingo artzain neska,
 negar betean ari da,
 beste aldeko ibarrera,
 ardi galduaren xerka.

Guardia zibila ari da,
mesprezuekin oihuka,
zizparekin mehatxuka,
ezin dela muga pasa.

Ikus zure pasaporta!,
beharrezkoa duzuna,
joateko beste aldera,
hau da guztien legea.

Ez dut nerekin hartua,
paperik gabe naiz sortua,
legea Madrilekoa da,
hemen bi aldeak, bat dira.

Bestaldean da Urruña,
haatik hemen da Bera,
herrialde berekoak dira,
Euskal Herria deitua.

Etorri zarete honera,
zuen legeak ezartzera,
gureak hain onak dira!,
arbasoen herentzia.

Utz nezazu pasatzen!,
nik ardia dut xerkatzen,
utz nezazu pasatzen!
Nere lurra da hemen.

*Fermin Balentzia: La pastora de ibardin
Xerar Urrutiak egin moldapena*

KARLOS IBARZABALEN BERTSOAK

EHIZTARI EHIZATUAK

Doinua: Euskal Herritik Aparte (X. Amuriza)

1.-Zabaldu nahirik tartea
sortu kaza elkarte
eta onartu bisitatzea
Zamora parte.
Betiko amets merkea
eper asko ekarte
baina goiz baten aldrebestu zan
gure suerte.

2.-Kazan ezagunak gara
beti hona eta hara
bardin mendiko basoetara
bardin landetara
garbitu errekamara
maletak txukun prepara
lau kilo "moral" lepoan hartu
hor goaz kazara.

3.-Lehenengo egunekoa
kontatu beharrekoa
nahiz eta izan urtero legez
beti-betikoa
aparteko jatekoa
edaria gustukoa
gerizpe baten iruntzi gendun
hamaiketakoa.

4.-Inor ez zedin makaldu
edo bidean kiskaldu
erabaki zan hobeto zala
patxadaz bazkaldu
gero programa azaldu
esperantza zelan galdu!
Piezak koixu baino lehenago
egin ziren saldu.

5.-Antolautako antzera
gaua eginez batera
ailega ginen Vitigudiño-n
dagon hotelera
azkar maletak atera
eta pentsa gendun zera:
Afaldu barik ezin joango
ginela ohera.

6.-Afaldu eta trankilak
 kafea hartzen mutilak
 non errimetan jakuzan bertan
 hango marabilak
 narru gorrian “Bakilak”
 “Konejuak” erdi hilak
 Zelako kaza egon baziren
 puntuan fusilak!

7.-Heldu zan hurrengo goiza
 eperretarako prisa
 hotelekoak esan zan legez
 seiretan abisa
 karraderan egin txiza
 kartutxerak errebisa
 geu konturatu baino lehenago
 hasi zan krisisa.

8.-Lo egiten dan denpora
 ustela zala gogora
 egunsentian heldu nahi gendun
 guk kazaderora
 gelditu zan aszensora
 ezin urten pasilora
 han egon ginen hiru-lau ordu
 ez behera ez gora.

9.-Buru belarri lotuak
 etortea damutuak
 aitortzen bere hasiak ginen
 geure pekatuak
 eta zer diren kontuak
 alegre txori tontuak
 aszensoretik entzun genduzan
 eperren kantuak.

10.-Antza kazako Jainkosa
eta aszensor karroza
alkartu ziren guri okertuz
egun aproposa
guk asmoak ezin osa
eperrentzat aldiz poza
pentsa bai baina kazan askorik
ez genduan goza.

11.-Han hartutako sorpresan
zeozer egin behar zan
egi osoa ezin etxean
ezelan be esan
nahizta garbia ez izan
Valladolid'eko plazan
erakusteko hamasei eper
erosi genduzan.

12.-“Gogoratu luzerora
ez goazela inora”
esaten triste bueltatu ginen
guztiok Bilbora
inor ez dago gustora
baina badoa denpora
eta urtea pasa orduko
dana ahaztuko da.

MENDI TRAIIDOREA. IÑURRATEGI ANAIAK G-IIAN

(Doinua: Gau eder batek ninduen - 8/8,8/8,10/8,10/8...)

1.- Sentimendu aldakorrak
datoz Alberton burura
gogoratzen dudanean
uztaileko egun hura.
Felix, bertsotan kantatuko dut
gure azken abentura
mendi tontorrek zapaldu ondoren
egiten gendun modura.

2.- Gaztetatik liluratu
malda eta mendi gainak
lanbro arte beldugarri
eguzki izpi lirainak
duintasunez egin ditugu
joan etorri bikainak
eta luzaro iraungo dute
Iñurrategi'n hazainak

3.- Mendi kate zabalena
gainean punta zorrotzak
denek hartzen gintuzten bi
abenturero zorrotzat,
baina mendira joan zaitezte
eskatzen zigun bihotzak
neke gutzia estaltzen bai du
edertasunezko oroitzak.

4.- Egunsenti ederrean
igo genuen G-IIa
ordu bete tontorrean
pozez zoraturik ia
esan zenidan, Alberto bada
behera jaisteko garaia:
nork pentsa behar izango zela
zuretzat azken bidaiara.

5.- Heriotza andereak
harrapatuaz batera
amildegi sakon baten
estaldu zinen kolpera,
orain goizero begiratzen dut
mendiaren magalera
dakidalako hantxe dagola
Felix zure hil-kapera.

6.- Gu elkarri ondo helduta
abiatu ginen goruntz
ipar haize gogor batek
hotzez izozteraino putz
gure muinetan asmo bakarra
nahiz eta izan bi gorputz,
bide ertzean nora ezean
aurkitu nintzen umezurtz.

7.- Jaitsieran gertatu zen
benetako zoritxarra
Felix barik itzultzeko
nondik atera indarra,
kanpamenduan negar zotinka
ez da gero lan edarra!!
heriotzaren azalpen latzak
Amari eman beharra.

8.- Zer sentitu behar nuen
Felix anaia hiltzean
gorputz dena izoztuta
hutsunea bihotzean,
atarramentu negargarria
beheko suaren ertzean:
pena izango da Atxabaletan
zer pena gure etxean!!

9.- Gaztetasun emankorrek
daraman atrebentzia
azterketa sakonekin
mendi kontutan jantzia
zenbat argazki, zenbat bideo
utzitako herentzia:
Zure izena geldituko da
urre gorritz idatzia.

10.- Zortzi milak altu daude
igoera beti latza
eman gendun goiz hotz hartan
hamabigarren urratsa,
ez zirenean bi baino falta
oinazpian zulo baltza
agur hamalau biok batera
egiteko esperantza.

11.- Hilabete batzuk pasa
ditut oroitzapenetan
ilargira begiratuz
beti amets gaiztoetan
azkenean bai! erabaki dut!
ez bedi inoren kaltetan,
nigaz batera ibilko zara
falta diren tontorretan

12.- Hartu ditut zaku, denda,
soka eta pioleta,
Felix zeu be maitekiro
bihotz erdian gordeta
mendi tontorrez disfrutatzeko
itxaropenez beteta:
**MENDI GAINEAN
IRRIPARRETSU
GOGORATZEN ZAITUT ETA.**

Karlos Ibarzabal

egin zazu lagun bat KARMEL aldizkariaren harpidedun...!

(urteko harpidetza: bakarrik 18 €).

Izena-deiturak - - - - -

Kalea - - - - - Zbkia. - - - - Solairua - - - - -

Herria - - - - - Tfnoa. - - - - Postakoadea - - - - -

Herraldea - - - - -

Ordainketa

Banku edo Aurrezki Kutxa - - - - -

Kontu korrontea/libreta - - - - -

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

* * * * *

Aldizkariaren helbidea:

KARMEL - Zuzendaritza

Karmengo kalea, 5

48270 Markina (Bizkaia)

(Tel. 946 166 019)

www.karmelaldizkaria.com/karmel